euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

EMF-REN MENDI-LASTERKETEN LEHIAKETEN ARAUDIA

(2023ko Batzarrean onartzeke)

Aurkibidea

1.- SARRERA ETA HELBURUAK 4

2.- AUTONOMIA-ERKIDEGOETAKO LEHIAKETAK, MOTAK 5

2.1.- EMFren Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Kopa 5

2.2- EMFren Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Txapelketak 7

2.3- EMFren Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Kopa eta Txapelketa. 10

2.3.2- EMFren Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Kopa. 10

2.3.3- EMFren Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Txapelketa. 11

2.4.- Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Txapelketa 14

2.5.- EMFren Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Kopa. 18

2.6.- Elur gaineko Mendi Lasterketen Euskadiko Txapelketa 21

2.7.- Elur gaineko Mendi Lasterketen Euskadiko Kopa 24

2.8.- Estatuko beste lehiaketa eta herri-lasterketa batzuk 25

2.9.- Kategoriak 25

3.- ANTOLAKUNTZA 27

3.1.- Lehiaketaren kontrola: epaile taldea eta ikuskatzaileak 27

3.2.- Antolakuntzako kideak 29

3.3.- Lehiaketako epaimahaia 29

4.- LEHIAKETA-ARAUDIA KORRIKALARIENTZAT 30

4.1.- Lehiaketarako izena ematea 30

4.2.- Materiala eta ekipamendua 30

4.3.- Materialaren kontrola eta hornidura gainbegiratzea 31

4.4.- Lehiakideen jokaera orokorra 31

4.5.- Korrikalari bat edo talde bat zigortzea edo deskalifikatzea 32

4.6.- Deskalifikazioa eta horrek ekar dezakeen zigorra 33

4.7.- Proba atzeratzea, etetea eta bertan behera uztea 33

5.- DOPINA 34

6.- TRIPTIKOAK ETA KARTELAK EGITEKO ARAUAK 35

7.- ERREKLAMAZIOAK ETA APELAZIO-SISTEMA 36

7.1.- Erreklamazioak 36

7.2.- Lehiaketaren ondorengo erreklamazioa 36

8.- LEHIAKETEN SEGURTASUNA ETA HOMOLOGAZIOA 37

8.1.- Atarikoa 37

8.2.- Ibilbidea 37

8.3.- Segurtasuna 39

8.4.- Irteerako eta helmugako guneak 40

8.5.- Kontrolak. Esleitzen zaizkien egitekoak eta ardurak 40

8.6.- Hornidura 41

8.7.- Kontroletako denborak 42

8.8- Mapak 42

8.9.- Dortsala 42

8.10.- Materiala gainbegiratzea eta kontrolatzea 43

8.11.- Ibilbide alternatiboak 43

8.12.- Informazio-bilera 43

8.13.- Sailkapenak 44

9.- EMF-REN RANKINGA 45

9.1.- Definizioa 45

9.2.- Puntuazioa 45

ERANSKINAK 46

1. eranskina: erreklamazio-orria 46

2. eranskina: antolatzailea erantzukizunetik salbuesteko klausula, EMFren proba ofizialetan oinetako minimalista edo alternatiboak erabiltzen diren kasuan. 48

1. Sarrera eta helburuak

Mendi-lasterketek Euskal Mendizale Federazioaren Estatutuetan biltzen diren jardueren barneko kirol-diziplina bat osatzen dute, eta estatutu horiek Eusko Jaurlaritzak onartu ditu.
Mendi-lasterketen kirol-espezialitatea behe-, erdi- eta goi-mailako mendiko lasterketen bidez garatzen da, udan zein neguan. Oinez egiten da ibilbidea, ahalik eta denbora laburrenean eta ingurune naturala ahalik eta gehien errespetatuz.

Mendi-lasterketen lehiaketek honako helburu hauek dituzte:

- Mendiko korrikalari onenak eta mendi-taldeen ekipo onenak biltzea lehiaketan.
- Mendiko korrikalarien kirol-maila hobetzea eta kirol-espezialitate horren bilakaerari laguntzea.
- Erreferentzia izatea nazioarteko lehiaketa ofizialetan **EMFren** ordezkari izan behar duten kirolariak hautatzeko.

2. Autonomia-erkidegoetako lehiaketak. Motak

EMF da bere lurraldean mendi-lasterketen esparruko lehiaketa mota hauetarako baimena emateko ardura duena:

2.1 - EMFren Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Kopa.
2.2 - EMFren Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Txapelketa.
2.3 - EMFren Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Kopa eta Txapelketa.
2.4 - EMFren Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Txapelketa.
2.5 - EMFren Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Kopa.
2.6 - Autonomia-erkidegoko mailako beste edozein lehiaketa, EMFk onartutakoa.

2. 1.- EMFren Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Kopa

- 2.1.1.- **EMF**k antolatzaileekin egindako hitzarmenean ezarritako baldintzen arabera, antolatzaileek Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Koparako baliagarriak izango diren probak antolatuko dituzte, araudi hau eta indarrean dauden arau teknikoak betez.
- 2.1.2- **Gutxienez hiru proba eta gehienez sei** prestatu ahal izango dituzte, eta horietako bakoitza egun bakarrean garatuko da.
- 2.1.3.- Probak bakarkakoak izango dira.
- 2.1.4- Lerroan kokatuta egingo da proben irteera. Elkarren segidan, lerro bat baino gehiago jarri ahal izango dira, ibilbide bakoitzerako bat, edota sailkapenaren edo lehen postuen arabera ezarri ahal izango dira lerroak.
- 2.1.5- EMFren puntuak lortzeko, parte-hartzaile euskaldun guztiek EMFren urte horretako lizentzia izango dute, lehiaketan parte hartzea estaltzen duen kirol-asegurua barne, ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuaren arabera, eta probaren epaile taldeari erakutsi beharko diote fisikoki.
- 2.1.6- Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Kopan EMFren puntuak lortzeko, euskaldunak ez diren parte-hartzaileek EMFren lizentzia edo, hala badagokio, beren erkidegoko lizentzia izan behar dute (EMFrekiko federazio homologoa), eta erantzukizun zibileko aseguru bat eta istripu-aseguru bat kontratatuta dituztela egiaztatu beharko dute. Aseguru horiek euskal lurraldean estaldura izan behar dute, eta Euskadin indarrean dagoenaren baliokidea izango da (849/1993 Errege Dekretua, ekainaren 4koa). Fisikoki erakutsi beharko dizkiote probako epaile taldeari.
- 2.1.7- Kategoriak
- Parte-hartzaileak kategoria eta azpikategoria hauetan banatuko dira:
  Kategoriak, Gizonezkoak eta Emakumezkoak: Kadete, Gazte, Junior eta Absolutuak.
  Kadete maila: 15 eta 16 urte, hau da, erreferentziako urtean 17 urte ez betetzea.
  Gazteen kategoria: 17 eta 18 urte, hau da, erreferentziako urtean 19 urte ez betetzea.
  Junior kategoria: 19 eta 20 urte, hau da, erreferentziako urtean 21 urte ez betetzea.
  Kategoria absolutua: 21 urtetik aurrera erreferentziako urtea beteta.

Gizonezkoen eta emakumezkoen azpikategoriak: A, B eta C beteranoak.

A azpikategoria beteranoa:
Erreferentziako urtean 50 urte betetzen ez dituzten 40-49 urteko gizonezkoak eta emakumezkoak.

Beteranoen B azpikategoria:
50 eta 59 urte bitarteko gizonezkoak eta emakumezkoak, erreferentziako urtean 60 urte betetzen ez dituztenak.

Beteranoen C azpikategoria:
Gizonezkoena eta emakumezkoena, erreferentziako urtea bete duten 60 urtetik aurrera.

Denboraldi osorako kontuan hartu beharreko adina parte-hartzaileak lehiaketaren urteko abenduaren 31n duena izango da.

Beteranoen A, B eta C azpikategorietan gizonezkoen eta emakumezkoen lehen sailkatuei bakarrik emango zaizkie sariak.

Mendi Lasterketen Euskadiko Kopari dagokionez, sailkapena baliozkotzeko gutxienez 4 lehiakidek parte hartu beharko dute, kadete, gazte eta junior mailan izan ezik.

- 2.1.8- Materiala eta ekipamendua
  - Antolatzaileek edo lasterketa-batzordeak egoki baderitzote, lehiakideek zehazten den ekipoa eta materiala eraman beharko dute, bereziki kaputxadun haize-babeseko jaka eta korrikalariari eta manta termikoari dagokien neurriko mahuka luzea. Antolakuntzak bastoien erabilera ere baimendu edo betatu ahal izango du.

- 2.1.9- Kategoria bakoitzerako puntuazio-sistema:
  Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Kopa osatzen duten proba bakoitzeko parte-hartzaileei honako puntuazio hau emango zaie: 100-88-78-78-72-68-66-64-62-60-60-58-56-54-52-50-48-46-44-42-40-38-36-36-34-32-30-28-26-24-22-20-18-16-14-12-10-6-4-2-2-2-2-2-2-2-2-2-2…
  51. postutik aurrera, 1-1-1-1-1… puntu emango dira, sailkapenaren amaierara arte. 100 puntu lehen sailkatuarentzat, 88 bigarrenarentzat, 78 hirugarrenarentzat, eta horrela, hurrenez hurren, 2 puntuko baliora iritsi arte. Azken puntuazio hori 50. postura arte mantenduko da, eta puntu 1 sailkapenaren amaierara arte.
  Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Kopako azken sailkapen orokorra egiteko 0 puntu emateko aukera ere izango da, eta puntuazio horrekin adieraziko da kirolariak ez duela parte hartu Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Kopako proba batean edo gehiagotan.

- 2.1.10- Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Kopan puntuatzeko eta, beraz, Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Kopako azken sailkapen orokorrean agertzeko, honako emaitza hauek batuko dira:
  - Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Kopak 3 proba baditu, 3 probatan lortutako emaitzak batuko dira, eta kirolariari 0 puntu emango zaizkio horietako batean parte

hartzen ez duenean.

- Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Kopak 4 proba baditu, **lortutako 3 emaitza onenak** batuko dira. Kirolariari 0 puntu emango zaizkio Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Kopako probaren batean parte hartzen ez duenean.
- Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Kopak 5 edo 6 proba baditu, lortutako **4 emaitza onenak** batuko dira. Kirolariari 0 puntu emango zaizkio Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Kopako probaren batean parte hartzen ez duenean.
- Mendi Lasterketen Euskadiko Kopak 7 edo 8 proba baditu, emakumezkoen eta gizonezkoen A, B eta C kategoria absolutuetan eta beteranoetan **lortutako 5 emaitzarik onenak** batuko dira. 0 puntu emango dira kirolariak Mendi Lasterketen Euskadiko Kopako probaren batean edo batzuetan parte hartzen ez duenean. Kadete, jubenil eta junior kategorietan emakumezkoen eta gizonezkoen probak gehienez 5 izango dira eta 4 emaitzarik onenak puntuatuko dituzte.

EMF-FVMk beretzat gordetzen du kopako proba bati edo batzuei puntuazio-ehuneko handiagoa emateko eskubidea, eta hori egutegia jakinarazten denean iragarriko da.

Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Kopa garatzen ari den bitartean, puntu gehien dituena izango da liderra (gizona zein emakumea), 2, 3 edo 4 emaitza onenak batuta, ordura arte egindako proben kopuruaren arabera eta Euskadiko Kopa osatzen duten proben kopuruarekin bat etorrita.

· 2.1.11- Bi lehiakideren edo gehiagoren arteko berdinketa gertatuz gero, bi kirolariek jokatu duten azken lasterketan lortutako emaitzarik onena hartuko da kontuan.

· 2.1.12- Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Kopa amaitutakoan eta azken probako sari-banaketa egin ondoren, kategoria bakoitzean sailkatutako lehen, bigarren eta hirugarrenei dagozkien garaikurrak, sariak eta diplomak banatuko dira.

2.2- EMFren Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Txapelketak

· 2.2.1.- **EMF**k antolatzaileekin egindako hitzarmenean ezarritako baldintzen arabera, antolatzaileek Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Txapelketarako baliagarriak izango diren probak antolatuko dituzte, araudi hau eta indarrean dauden arau teknikoak betez.

· 2.2.2- EMFren Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Txapelketek proba bakarra izango dute, eta egun bakarrean egingo da.

· 2.2.3- Lerroan kokatuta egingo da proben irteera. Elkarren segidan, lerro bat baino gehiago jarri ahal izango dira, ibilbide bakoitzerako bat, edota sailkapenaren edo lehen postuen arabera ezarri ahal izango dira lerroak.

· 2.2.4- Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Txapelketan parte hartu ahal izateko, parte-hartzaile euskaldun guztiek EMFren urte horretako lizentzia izan beharko dute, lehiaketan parte hartzea estaltzen duen kirol-asegurua barne, ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuaren arabera, eta

probaren epaile taldeari erakutsi beharko diote fisikoki.
Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Txapelketan parte hartzeko, euskaldunak ez diren parte-hartzaileek EMFren lizentzia edo dagokien herrialdekoa (EMFren baliokide den federazioarena) izan behar dute, eta erantzukizun zibileko aseguru bat eta istripu-aseguru bat kontratatuta dituztela egiaztatu beharko dute. Aseguru horiek euskal lurraldean estaldura izan behar dute, eta Euskadin indarrean dagoenaren baliokidea izango da (849/1993 Errege Dekretua, ekainaren 4koa). Fisikoki erakutsi beharko dizkiote probako epaile taldeari.

- 2.2.5- Kategoriak
  Parte-hartzaileak kategoria eta azpikategoria hauetan banatuko dira:

  Kategoriak, Gizonezkoak eta Emakumezkoak: Kadete, Gazte, Junior eta Absolutuak.
  Kadete maila: 15 eta 16 urte, hau da, erreferentziako urtean 17 urte ez betetzea.
  Gazteen kategoria: 17 eta 18 urte, hau da, erreferentziako urtean 19 urte ez betetzea.
  Junior kategoria: 19 eta 20 urte, hau da, erreferentziako urtean 21 urte ez betetzea.

  Kategoria absolutua: 21 urtetik aurrera erreferentziako urtea beteta.

  Gizonezkoen eta emakumezkoen azpikategoriak: A, B eta C beteranoak.
  A azpikategoria beteranoa:
  Erreferentziako urtean 50 urte betetzen ez dituzten 40-49 urteko gizonezkoak eta emakumezkoak
  Beteranoen B azpikategoria:
  50 eta 59 urte bitarteko gizonezkoak eta emakumezkoak, erreferentziako urtean 60 urte betetzen ez dituztenak
  Beteranoen C azpikategoria:
  Gizonezkoena eta emakumezkoena, erreferentziako urtea bete duten 60 urtetik aurrera

Denboraldi osorako kontuan hartu beharreko adina parte-hartzaileak lehiaketaren urteko abenduaren 31n duena izango da.

Beteranoen A, B eta C azpikategorietan gizonezkoen eta emakumezkoen lehen sailkatuei bakarrik emango zaizkie sariak.

Euskadiko Mendi Lasterketen lineako txapelketaren ondorioetarako, sailkapena baliozkotzeko gutxienez 4 lehiakidek parte hartu beharko dute, kadete, gazte eta junior mailan izan ezik.

- 2.2.6- Lehiaketa amaitzean, 2 sailkapen egingo dira: batean, parte hartu duten kirolari guztiak agertuko dira, eta probako sariak sailkapen horren arabera emango dira; bestean, EMFren lizentzia duten Euskal Herriko parte-hartzaileak bilduko dira, eta Euskadiko Txapelketako podiuma sailkapen horren arabera osatuko da.

- 2.2.7- Euskadiko Mendi Lasterketen Lineako Txapelketa amaitzean, kategoria bakoitzean sailkatutako lehen, bigarren eta hirugarrenei dagozkien garaikurrak, sariak eta diplomak banatuko dira.

· 2.2.8- EMFk haur eta kadeteen (eskolako adineko haurrak) Euskadiko Txapelketa antolatu ahal izango du, gainerako kategorietatik bereizita.

EMFko kluben modalitatea

EMFko Kluben arteko Lerroko Mendi Lasterketen Euskadiko Txapelketa EMFko kide diren klubetako kideentzako lehiaketa esklusiboa da, eta, beraz, urte horretako EMFren lizentzia duten kirolarientzat, haien nazionalitatea edozein dela ere. Izena klubek bakarrik eman dezakete, Kluben arteko Euskadiko Txapelketa denean.

a) Taldeak gizonezko absolutuak eta emakumezko absolutuak izango dira, eta gutxienez **4** eta gehienez **8 kidek** osatuko dituzte.

b) EMFk egokitzat jotzen badu, "Kluben arteko Lineako Mendi Lasterketen Euskadiko Txapelketa" egin ahal izango da, gazteen kategoriakoa (gizonezkoak, emakumezkoak eta mistoak); gutxienez **3 kidez** eta gehienez **8 kidez** osatuta egon behar dute taldeek. **3** emaitza onenek puntuatuko dute.

c) **Kide** bakoitzari puntuak emateko orduan, kontuan izango da kirolari bakoitzak helmugara sartzean lortutako postua, bai gizonezkoen kategoria absolutuan eta bai emakumezkoen kategoria absolutuan. Puntuazio-zerrenda horretan, Kluben arteko Euskadiko Txapelketan izena eman duten kirolariak bakarrik hartuko dira kontuan; beraz, gainerako parte-hartzaileak ez dira kontuan hartuko. Adibidea: gizonezkoen kategoria absolutuan edo emakumezkoen kategoria absolutuan helmugara lehen postuan sartzen den korrikalariari puntu 1 esleitzen zaio, bigarren postuan iristen denari 2 puntu, hirugarren postuan iristen denari 3 puntu, eta horrela hurrenez hurren.

d) Klub bakoitzeko gizonezkoen talde absolutu bat eta emakumezkoen talde absolutu bat soilik inskribatu ahal izango dira ofizialki, eta talde ofizialetako kide diren korrikalariek soilik lortuko dituzte puntuak.

e) EMFko Kluben arteko Euskadiko Txapelketako sailkapena lau korrikalari onenen puntuen batura eginez lortuko da. Horrenbestez, puntu **GUTXIEN** lortzen duena izango da klub txapelduna edo Federazio Autonomiko Txapelduna.

f) Berdinketa gertatuz gero, ondoen sailkatutako korrikalaria duen taldeak irabaziko du.

g) Izena emateko orduan, txapelketa horretan parte hartzen duten klubek kirolari ordezkarien zerrenda aurkeztuko diete antolatzaileari eta EMFri, izen-abizenak, NANa eta jaiotze-data zehaztuz. Horretarako, EMFren inprimakia erabiliko dute. Kirolariek urte horretako federazio-lizentzia izapidetu duten kluba soilik ordezkatu ahal izango dute.

h) Klubetako kirolariek jantzi edota ekipamendu bera eraman beharko dute nahitaez, ondo identifikatuko dituena (gutxienez, lehiaketako kamiseta).

i) Kluben aurkezpen-desfile bat antolatzen bada, nahitaezkoa izango da parte hartzen duen talde osoa bertaratzea, edo, gutxienez, inskribatutako klubaren gutxieneko ordezkaritza bat.

Puntu gutxien lortzen dituen klubeko gizonezkoen edo emakumezkoen talde absolutua Euskadiko Txapeldun izendatuko da.

• 2.2.9--Materiala eta ekipamendua

- Antolatzaileek edo lasterketa-batzordeak egoki baderitzote, lehiakideek zehazten den ekipoa eta materiala eraman beharko dute, bereziki kaputxadun haize-babeseko jaka eta korrikalariari

eta manta termikoari dagokien neurriko mahuka luzea. Antolakuntzak bastoien erabilera ere baimendu edo betatu ahal izango du.

2.3- EMFren Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Kopa eta Txapelketa.

- 2.3.1.- EMFk antolatzaileekin egindako kontratuan ezarritako baldintzen arabera, antolatzaileek Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Koparako edo Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Txapelketarako baliagarriak izango diren probak antolatuko dituzte, araudi hau eta indarrean dauden arau teknikoak betez.

- 2.3.2- **EMFren Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Kopa.**
  - 2.3.2.1- Gutxienez **hiru proba eta gehienez hamar** egin ahal izango dira, eta horietako bakoitza egun bakarrean garatuko da.
  - 2.3.2.2.- Probak bakarkakoak izango dira. Parte-hartzaileek 15 urte izango dituzte gutxienez, probaren erreferentzia-urtean beteta. Lehiaketetan parte hartu ahal izateko, parte-hartzaile adingabeek tutoretza-baimena aurkeztu beharko dute.
  - 2.3.2.3- Proben irteerak horrela egin ahal izango dira:
    - **a)** Denak batera. Elkarren segidan, lerro bat baino gehiago jarri ahal izango dira, kategoria bakoitzerako bat, edota sailkapenaren edo lehen postuen arabera ezarri ahal izango dira lerroak.
    - **b)** Banaka. Lehiakideen artean denbora-tarte bat zehaztuko da (30 segundotik bi minutura), antolatzaileen irizpidearen arabera eta EMFko epaileekin adostuta, betiere.
  - 2.3.2.4- EMFren puntuak lortzeko Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Kopan, parte-hartzaile euskaldun guztiek EMFren urte horretako lizentzia izango dute, lehiaketan parte hartzea estaltzen duen kirol-asegurua barne, ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuaren arabera, eta probaren epaile taldeari erakutsi beharko diote fisikoki.
  - 2.3.2.5- Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Kopan EMFren puntuak lortzeko, euskaldunak ez diren parte-hartzaileek EMFren lizentzia edo, hala badagokio, beren herrialdeko lizentzia izan behar dute (EMFrekiko federazio homologoa), eta erantzukizun zibileko aseguru bat eta istripu-aseguru bat kontratatuta dituztela egiaztatu beharko dute. Aseguru horiek euskal lurraldean estaldura izan behar dute, eta Euskadin indarrean dagoenaren baliokidea izango da (849/1993 Errege Dekretua, ekainaren 4koa). Fisikoki erakutsi beharko dizkiote probako epaile taldeari.
  - 2.3.2.6- Mendi Bertikaleko Lasterketako Euskadiko Koparen ondorioetarako, gutxienez 4 lehiakidek parte hartu beharko dute sailkapena baliozkotzeko, kadete, gazte eta junior mailetan izan ezik.
  - 2.3.2.7- Kategoria bakoitzerako puntuazio-sistema:
    Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Kopa osatzen duten proba bakoitzeko parte-hartzaileei honako puntuazio hau emango zaie: 100-88-78-72-68-66-64-62-60-58-56-54-52-50-48-46-44-42-40-38-36-34-32-30-28-26-24-22-20-18-16-14-12-10-8-6-4-2-2-2-2-2-2-2-2-2-2-2-2-2… 51. postutik aurrera, 1-1-1-1-1… puntu emango dira, sailkapenaren amaierara arte. 100 puntu lehen sailkatuarentzat, 88 bigarrenarentzat, 78 hirugarrenarentzat, eta horrela, hurrenez hurren, 2 puntuko baliora iritsi arte. Azken puntuazio hori 50. postura arte mantenduko da, eta puntu 1 sailkapenaren amaierara arte.

Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Kopako azken probak gainerakoek baino puntu gehiago izango ditu, % 20 gehiago; hau da: 120-106-94-86-82-79-77-74-72-70-67-65-62-60-58-55-53-50-48-46-43-41-38-36-34-31-29-26-24-22-19-17-14-12-10-7-5-2-2-2-2-2-2-2-2, etab.

Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Kopako azken sailkapen orokorra egiteko 0 puntu emateko aukera ere izango da, eta puntuazio horrekin adieraziko da kirolariak ez duela parte hartu Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Kopako proba batean edo gehiagotan.

- 2.3.2.8- Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Kopan puntuatzeko eta, beraz, Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Kopako azken sailkapen orokorrean agertzeko, honako emaitza hauek batuko dira:
- Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Kopak 3 proba baditu, 3 probatan lortutako emaitzak batuko dira, eta kirolariari 0 puntu emango zaizkio horietako batean parte hartzen ez duenean.
- Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Kopak 4 proba baditu, lortutako 3 emaitza onenak batuko dira. Kirolariari 0 puntu emango zaizkio Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Kopako probaren batean parte hartzen ez duenean.
- Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Kopak 5 edo 6 proba baditu, lortutako 4 emaitza onenak batuko dira. Kirolariari 0 puntu emango zaizkio Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Kopako probaren batean parte hartzen ez duenean.

  - Mendi Lasterketen Euskadiko Kopak 7 edo 8 proba baditu bertikalean, **5 emaitzarik onenak** batuko dira emakumezkoen eta gizonezkoen A, B eta C kategoria absolutu eta beteranoetan. 0 puntu emango dira kirolariak ez badu parte hartzen mendi bertikaleko lasterketen Euskadiko Kopako proba batean edo batzuetan. Kadete, gazte eta junior kategorietan emakumezkoen eta gizonezkoen probak gehienez 5 izango dira eta 4 emaitzarik onenak puntuatuko dituzte.
- 2.3.2.9- Bi lehiakideren edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, azken lasterketan lortutako emaitzarik onena hartuko da kontuan.
- 2.3.2.10- Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Kopa amaitutakoan eta azken probako sari-banaketa egin ondoren, irabazleak iragarriko dira eta trofeoak, sariak eta diplomak esleituko eta banatuko zaizkie kategoria bakoitzeko txapeldunei, txapeldunordeei eta hirugarren sailkatuei.
- 2.3.2.11- Materiala eta ekipamendua

- Antolatzaileek edo lasterketa-batzordeak egoki baderitzote, lehiakideek zehazten den ekipoa eta materiala eraman beharko dute, bereziki kaputxadun haize-babeseko jaka eta korrikalariari eta manta termikoari dagokien neurriko mahuka luzea. Antolakuntzak bastoien erabilera ere baimendu edo betatu ahal izango du.

- 2.3.3- **EMFren Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Txapelketa.**

- 2.3.3.1 – EMFren Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Txapelketak proba bakarra izango du, egun batean egitekoa; horrez gain, banakako izaera izango du.
- 2.3.3.2- Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Txapelketan parte hartu ahal izateko, parte-hartzaile euskaldun guztiek EMFren urte horretako lizentzia izan beharko dute, lehiaketan parte hartzea estaltzen duen kirol-asegurua barne, ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuaren arabera, eta probako epaile taldeari erakutsi beharko diote fisikoki.

  Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Txapelketan parte hartzeko, euskaldunak ez diren parte hartzaileek EMFren lizentzia edo dagokien herrialdeko lizentzia (EMFrekiko federazio

homologoa) izan behar dute, eta erantzukizun zibileko aseguru bat eta istripu-aseguru bat kontratatuta dituztela egiaztatu beharko dute. Aseguru horiek euskal lurraldean estaldura izango dute, eta Euskadin indarrean dagoenaren baliokidea izango da (849/1993 Errege Dekretua, ekainaren 4koa). Fisikoki erakutsi beharko dizkiote probako epaile taldeari.
Lehiaketa amaitutakoan, 2 sailkapen egingo dira: batean, parte hartu duten kirolari guztiak agertuko dira, eta probako sariak sailkapen horren arabera emango dira; bestean, EMFren lizentzia duten Euskal Herriko parte-hartzaileak bilduko dira, eta Euskadiko Txapelketako podiuma sailkapen horren arabera osatuko da.

- 2.3.3.3-Kategoriak
  Parte-hartzaileak kategoria eta azpikategoria hauetan banatuko dira:
  Kategoriak, Gizonezkoak eta Emakumezkoak: Kadete, Gazte, Junior eta Absolutuak.
  Kadete maila: 15 eta 16 urte, hau da, erreferentziako urtean 17 urte ez betetzea.
  Gazteen kategoria: 17 eta 18 urte, hau da, erreferentziako urtean 19 urte ez betetzea.
  Junior kategoria: 19 eta 20 urte, hau da, erreferentziako urtean 21 urte ez betetzea.
  Kategoria absolutua: 21 urtetik aurrera erreferentziako urtea beteta.

  Gizonezkoen eta emakumezkoen azpikategoriak: A, B eta C beteranoak.
  A azpikategoria beteranoa:
  Erreferentziako urtean 50 urte betetzen ez dituzten 40-49 urteko gizonezkoak eta emakumezkoak
  Beteranoen B azpikategoria:
  50 eta 59 urte bitarteko gizonezkoak eta emakumezkoak, erreferentziako urtean 60 urte betetzen ez dituztenak
  Beteranoen C azpikategoria:
  Gizonezkoena eta emakumezkoena, erreferentziako urtea bete duten 60 urtetik aurrera
  Denboraldi osorako kontuan hartu beharreko adina parte-hartzaileak lehiaketaren urteko abenduaren 31n duena izango da.
  Beteranoen A, B eta C azpikategorietan gizonezkoen eta emakumezkoen lehen sailkatuei bakarrik emango zaizkie sariak.
  - Mendi Bertikaleko Lasterketako Euskadiko Txapelketaren ondorioetarako, gutxienez 4 lehiakidek parte hartu beharko dute sailkapena baliozkotzeko, kadete, gazte eta junior kategoriatan izan ezik.
- 2.3.3.4- Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Txapelketa amaitutakoan, irabazleak iragarriko dira eta trofeoak, sariak eta diplomak banatuko zaizkie kategoria bakoitzeko txapeldunei, txapeldunordeei eta hirugarren sailkatuei.
- 2.3.3.5 - EMFk egoki baderitzo, proba horren gainean “Kluben arteko Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Txapelketa” egingo da, honako irizpide hauen arabera:

EMFko kluben modalitatea

EMFko Kluben arteko Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Txapelketa EMFko kide diren klubetako kideentzako lehiaketa esklusiboa da, eta, beraz, urte horretako EMFren lizentzia duten kirolarientzat, haien nazionalitatea edozein dela ere. Izena klubek bakarrik eman dezakete, Kluben arteko Euskadiko Txapelketa denean.

a) Taldeak gizonezko absolutuak eta emakumezko absolutuak izango dira, eta gutxienez **4** eta gehienez **8 kidek** osatuko dituzte.

b) EMFk egokitzat jotzen badu, "Kluben arteko Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Txapelketa" egin ahal izango da, Gazteen edota Junior kategoriakoa (Gizonezkoak eta Emakumezkoak); gutxienez **3 kidez** eta gehienez **8 kidez** osatuta egon behar dute taldeek. **3** emaitza onenek puntuatuko dute. Talde mistoetan, beharrezkoa izango da gizonezko kirolari bat eta emakumezko bi, edo alderantziz.

c) **Kide bakoitzari** puntuak emateko orduan, kontuan izango da kirolari bakoitzak helmugara sartzean lortutako postua, bai gizonezkoen kategoria absolutuan eta bai emakumezkoen kategoria absolutuan. Puntuazio-zerrenda horretan, Kluben arteko Euskadiko Txapelketan izena eman duten kirolariak bakarrik hartuko dira kontuan; beraz, gainerako parte-hartzaileak ez dira kontuan hartuko. Adibidea: gizonezkoen kategoria absolutuan edo emakumezkoen kategoria absolutuan helmugara lehen postuan sartzen den korrikalariari puntu 1 esleitzen zaio, bigarren postuan iristen denari 2 puntu, hirugarren postuan iristen denari 3 puntu, eta horrela hurrenez hurren.

d) Klub bakoitzeko gizonezkoen talde absolutu bat eta emakumezkoen talde absolutu bat soilik inskribatu ahal izango dira ofizialki, eta talde ofizialetako kide diren korrikalariek soilik lortuko dituzte puntuak.

e) EMFko Kluben arteko Euskadiko Txapelketako sailkapena **klubetako lau** korrikalari onenen puntuen batura eginez lortuko da. Horrenbestez, puntu **GUTXIEN** lortzen duena izango da klub txapelduna.

f) Berdinketa gertatuz gero, ondoen sailkatutako korrikalaria duen taldeak irabaziko du, edo ondoen sailkatutako bi edo hiru korrikalariak dituena, berdinketa errepikatzen bada.

g) Izena emateko orduan, txapelketa horretan parte hartzen duten klubek kirolari ordezkarien zerrenda aurkeztuko diete antolatzaileari eta EMFri, izen-abizenak, NANa eta jaiotze-data zehaztuz. Horretarako, EMFren inprimakia erabiliko dute. Kirolariek urte horretako federazio-lizentzia izapidetu duten kluba soilik ordezkatu ahal izango dute.

h) Klubetako kirolariek jantzi edota ekipamendu bera eraman beharko dute nahitaez, ondo identifikatuko dituena (gutxienez, lehiaketako kamiseta).

i) Kluben aurkezpen-desfile bat antolatzen bada, nahitaezkoa izango da parte hartzen duen talde osoa bertaratzea, edo, gutxienez, inskribatutako klubaren gutxieneko ordezkaritza bat.

Puntu gutxien lortzen dituen klubeko gizonezkoen edo emakumezkoen talde absolutua Euskadiko Txapeldun izendatuko da.

· 2.3.3.6 – EMFren Mendi Lasterketa Bertikalen probetarako desnibelak eta distantziak.
Lasterketa Bertikalen lehiaketek igoera bakarra izango dute, eta % 5eko jaitsierak onartuko dira gehienez, lurraren ezaugarrien araberakoak eta, betiere, ez eragindakoak.
Igoerako gutxieneko desnibela 700 metrokoa izango da.
Gehieneko distantzia 8 kilometrokoa izango da.
Batez besteko maldaren ehunekoa % 20tik % 50era bitartekoa izango da, honako formula honen arabera:

- Distantzia bertikalean x 100 / Distantzia horizontalean= Maldaren %

Lurzoruaren tipologiak egokia izan behar du norbera babesteko materialik gabe aurrera egiteko, eta soka finkoak erabili ahal izango dira, ibilbidearen baldintzek hala eskatzen badute.

· 2.3.3.7- Kilometro Bertikala izateko, lehiaketak irteeraren eta helmugaren artean 1.000 metroko desnibel positiboa (+/- % 5eko tolerantzia) izan behar du, malda handiko lur irregularrean garatu

behar du, eta ibilbideak ez ditu 5 kilometro baino gehiago izan behar.

- 2.3.3.8 – Antolatzaileek ezarritako kronometraje-sistemak denborak behar bezala hartuko direla bermatu behar du. Txip elektronikoaren edota zelula fotoelektrikoaren sistema erabiltzea gomendatzen da, gutxienez helmugako eremuan, bai eta emaitzak berehala ezagutu eta argitaratu ahal izateko sistema informatikoa ere. Erlojuaren aurkako banakako irteeren kasuan, kronometraje elektronikoa nahitaezkoa izango da.

- 2.3.3.9 - 1.200 metrotik gorako desnibela duten lehiaketetan, antolakuntzak hornidura-puntu likidoa izango du ibilbidearen erdian. Lehiaketak 1.800 metroko desnibela gainditzen badu, 600 metroko desnibeleko zati bakoitzean hornidura-puntu likidoak izango ditu antolakuntzak, eta horietako bat, gainera, hornidura-puntu solidoa ere izango da, ibilbidearen bigarren erdian kokatua.

- 2.3.3.10 – Materiala eta ekipamendua
  - Antolatzaileek edo lasterketa-batzordeak egoki baderitzote, lehiakideek zehazten den ekipoa eta materiala eraman beharko dute, bereziki kaputxadun haize-babeseko jaka eta korrikalariari eta manta termikoari dagokien neurriko mahuka luzea. Antolakuntzak bastoien erabilera ere baimendu edo betatu ahal izango du.
- Makilen erabilera: honako muga hauekin erabili ahal izango dira:
  1. Denak batera irteten diren lasterketetan, ezin izango dira erabili irten eta lehen 150 metroak igaro arte; bertikalki jarrita eta esku batean eraman beharko dira, eta distantzia hori kartel baten bidez edo antolaketako pertsona baten bidez identifikatuta egongo da; puntu horretatik aurrera normaltasunez erabili ahal izango dira.
  2. Banakako irteera duten lasterketetan, puntak babestu gabe erabili ahal izango dira, baina beste parte-hartzaile bat gainditutakoan edo hark gainditzen dituenean, gutxienez hiru metroko segurtasun-tartea gorde beharko da. Tarte horri eutsi ezin bazaio, aurreratu arte ezingo dira makilak erabili.

- 2.3.3.11 - Banakako irteera kronometratua bada, proba baino 48 ordu lehenago gutxienez, antolatzaileek parte-hartzaileen irteera-zerrenda bat izango dute, irteteko aurreikusitako ordu zehatzarekin, eta irteera batetik bestera 30" egon beharko dira gutxienez. Antolatzaileek beharrezkotzat jotzen badute, bi eta hiru korrikalari batera irten ahal izango dira, banaka egin beharrean.

- 2.3.3.12 - Antolatzaileek, esleitutako epaile taldearen ikuskaritzarekin, irteera-ordena bat ezarri beharko dute, aurreko denboraldiko edota indarreko denboraldiko lehiaketaren sailkapenaren arabera. Lehen postuetan dauden korrikalariak azkenak irtengo dira.

2.4- Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Txapelketa

- 2.4.1- EMFren Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Txapelketak proba bakarra izango du; gehienez ere 2 egunetan egingo da, eta banakako izaera izango du.

- 2.4.2- Euskadiko Txapelketan parte hartu ahal izateko, parte-hartzaile euskaldun guztiek EMFren urte horretako lizentzia izan beharko dute, lehiaketan parte hartzea estaltzen duen kirol-asegurua barne, ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuaren arabera, eta probako epaile taldeari erakutsi

beharko diote fisikoki.
Euskadiko Txapelketan parte hartzeko, euskaldunak ez diren parte hartzaileek EMFren lizentzia edo dagokien herrialdeko lizentzia (EMFrekiko federazio homologoa) izan behar dute, eta erantzukizun zibileko aseguru bat eta istripu-aseguru bat kontratatuta dituztela egiaztatu beharko dute. Aseguru horiek euskal lurraldean estaldura izango dute, eta Euskadin indarrean dagoenaren baliokidea izango da (849/1993 Errege Dekretua, ekainaren 4koa). Fisikoki erakutsi beharko dizkiote probako epaile taldeari.
Lehiaketa amaitutakoan, 2 sailkapen egingo dira: batean, parte hartu duten kirolari guztiak agertuko dira, eta probako sariak sailkapen horren arabera emango dira; bestean, EMFren lizentzia duten Euskal Herriko parte-hartzaileak bilduko dira, eta Euskadiko Txapelketako podiuma sailkapen horren arabera osatuko da.
Era berean, Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Txapelketan parte hartzeko, ezinbestekoa izango da osasun-ziurtagiri bat aurkeztea, lehiaketaren urteko denboraldiaren hasieran egindakoa; ziurtagiri horrek kirolaria mendi-lasterketetako proba honetan kirol intentsiboa egiteko gaituko du.

- 2.4.3- **Kategoriak:** Mendiko Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Txapelketan, kategoria eta azpikategoria hauek bereiziko dira parte-hartzaileen artean: absolutua, beteranoa A, B eta C (gizonezkoak eta emakumezkoak). Kategoria eta azpikategoria guztietan, sailkapena balioztatzeko 4 lehiakidek hartu beharko dute parte, gutxienez. Lehiakide gutxiago izanez gero, ez da sari-banaketarik egingo kategoria eta azpikategoria horietan.

- 2.4.4- Mendiko Ultra Trail Euskadiko Txapelketa amaitutakoan, irabazleak iragarriko dira eta trofeoak, sariak eta diplomak banatuko zaizkie kategoria bakoitzeko txapeldunei, txapeldunordeei eta hirugarren sailkatuei.

- 2.4.5 - **Definizioa:** Mendiko Ultra Trail Lasterketen lehiaketa behe, erdi eta goi mailako mendietan zehar egiten da, gutxienez 60 kilometroko distantzia eta 3.300 metro positiboko desnibel metatua izaten du, eta etapa bakarrean egiten da. Ultra Trail lasterketak ezin izango ditu % 40tik gorako maldak edo 2. mailatik gorako zailtasun teknikoak gainditu.

- 2.4.6- **Ibilbidea:** behar bezala seinaleztatuta egon behar du ibilbide osoak, eta, batez ere, bidegurutzeak eta galtzeko arriskua dagoen lekuak markatuko dira; beharrezkotzat jotzen denean, antolakuntzak pertsona bat jarriko du leku horietan. Gutxienez 10 kilometroko tarte bakoitzeko kilometroen adierazgarri bat erabiliko da, eta kilometroen zifra ondo definituta agertuko da bertan. Asfaltatutako edo zimendatutako zatiak ez dira ibilbide osoaren % 15 baino gehiago izango, hiri-inguruetako zatiak kontuan hartu gabe.

- 2.4.7- **Hornidura:** lasterketaren ibilbidean zehar, antolatzaileek hornidura-guneak jarriko dituzte; hala ere, EMFren Ultra Trail lasterketak autoaskitasunezkoak edota erdi-autoaskitasunezkoak izan daitezke, eta lasterketako epaile eta antolatzaileek horren berri emango diete parte-hartzaileei, lasterketa aurretik egiten den bilera teknikoan eta parte-hartzaileei aurretiaz ematen zaien informazioan. Hornidura-kontroletan, antolakuntzak ontziak jarriko ditu, parte-hartzaileek hondakinak berorietan utz ditzaten, kontrol-gunetik 100 metrora; eta puntu horretan, hornidura-gunea amaitzen dela adierazten duen kartel bat jarriko da, eta baita beste kartel bat ere, hornidura-gunea hasten den lekua baino 100 metro lehenago.

- 2.4.8.- **Pasoko kontrolak:** antolakuntzak bere irizpidearen arabera ezarriko ditu pasoko kontrolak, segurtasuna, estrategia eta sarrerak kontuan hartuta. Isilpeko kontrolak ere ezarri ahal izango ditu, antolakuntzaren irizpideen arabera. Antolakuntzak, egokiak iruditzen zaizkion irizpideen arabera, kontroletatik pasatzeko gehieneko denborak ezar ditzake, erreferentziatzat orduko 4-5 kilometroko gutxieneko abiadura hartuta. Parte-hartzaileei lasterketa gehieneko denbora horietan amaitzeko aukera emateko moduan kalkulatuko dira gehieneko denbora horiek, egin daitezkeen atsedenaldiak eta otorduak kontuan hartuta; hori guztia EMFko epaileekin bat etorrita egingo da.

- 2.4.9- **Nahitaezko materiala:** parte-hartzaile guztiek, nahitaez, honako material hau eraman behar dute gutxienez:
  - Mendiko oinetakoak edo oinetako minimalistak edo alternatiboak, horiek erabiltzeko baldintzekin, 4.2.2 puntuan adierazitakoaren arabera.
  - Mahuka luzeko haize-babeseko jaka bat, txanoarekin, korrikalari bakoitzari dagokion neurrikoa.
  - Biziraupenerako tapaki termikoa (1,20 X 2,10, gutxienez).
  - Ura gordetzeko edukiontzia, litrokoa gutxienez.
  - Kopeta-argia edo esku-argia, ordezko pilekin.
  - Atzeko posizioko argi gorria, gauez piztuta.
  - Sakelako telefonoa, piztuta eta bateria nahikoarekin.
  - Txanoa, bisera edo zapia.
  - Galtzak edo elastikoak, belaunetik beherainokoak gutxienez.

  Nahitaez eraman beharreko materiala kontrolatuko dute EMFko epaileek dortsalen kontrolean eta ibilbideko edozein lekutan; korrikalari guztiek onartu beharko dute kontrol hori, uko egiteak zehapena jasotzea edo lasterketatik deskalifikatzea ekar baitezake.

  Material gomendagarria:
  - Eskularruak
  - Txilibitua
  - GPSa edo iparrorratza

- 2.4.10- **Parte-hartzaileen segurtasuna:** antolakuntzak honako zerbitzu hauek eskainiko ditu:
  - Osasun-laguntzako zerbitzuak, anbulantziak eta sendagile bat irteeran eta helmugan, gutxienez.
  - Erratz-talde bat, probaren norabide berean ibilbide osoa oinez egingo duena.
  - Kontrolen, erratz-taldearen, irteerako gunearen, helmugaren eta lasterketako zuzendariaren arteko komunikazioa.
  - Larrialdiko plana eta parte-hartzaileen ebakuazioa, lasterketa garaian.

- 2.4.11- **Ibilbide alternatiboa**: antolakuntzak ibilbide alternatibo bat prestatuta izan behar du gutxienez, baldintza meteorologikoak arriskutsuak badira, lasterketa beste bide batetik egiteko aukera izateko eta, horrela, korrikalarien segurtasuna bermatzeko.

- 2.4.12- **Materialaren kontrola**: proba hasi aurretik, antolakuntzak dortsalak eta nahitaez eraman beharreko materiala egiaztatuko ditu, eta parte-hartzaileak eremu itxi batera pasatuko dira,

irteera unera arte. Irteera baino minutu batzuk lehenago, antolakuntzak eguraldiaren iragarpena, azken orduko berriak eta ingurumena zaintzeak duen garrantzia gogoraraziko dizkie parte-hartzaile guztiei.

- 2.4.13- **Korrikalari bati lasterketa utzaraztea**: EMFko epaileek edota sendagileak lehiaketa uzteko esan diezaiokete korrikalari bati, eta dortsala kendu ahal izango diote, nekeagatik edota proban jasandako higatzeagatik gaitasun fisikoak edo teknikoak murriztuta dituela ikusten dutenean, horrela, korrikalariaren osasuna bermatzeko.

EMFko kluben modalitatea

EMFko Kluben arteko Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Txapelketa EMFko kide diren klubetako kideentzako lehiaketa esklusiboa da, bai eta federazio autonomikoen ordezkari diren kirolariek osatutako klubentzako eta, beraz, urte horretako EMFren lizentzia duten kirolarientzat, haien nazionalitatea edozein dela ere. Izena klubek bakarrik eman dezakete, Euskadiko Kluben arteko Txapelketa denean.

a) Taldeak mistoak izango dira, eta kategoria absoluturako bakarrik. Gutxienez 3 eta gehienez 6 parte-hartzailek osatuko dituzte. Talde bakoitzeko lehen hirurek baino ez dute puntuatuko. Taldeak gutxienez beste sexuko kide batekin osatu beharko dira, hau da, bi neskak izango dira eta bat mutila edo alderantzizkoa; bi mutil eta neska bat izango dira.
b) Kide bakoitzari puntuak emateko orduan, kontuan izango da kirolari bakoitzak helmugara sartzean lortutako postua, bai gizonezkoen kategoria absolutuan eta bai emakumezkoen kategoria absolutuan. Puntuazio-zerrenda horretan, Kluben arteko Euskadiko Txapelketan izena eman duten kirolariak bakarrik hartuko dira kontuan; beraz, gainerako parte-hartzaileak ez dira kontuan hartuko. Adibidea: gizonezkoen kategoria absolutuan edo emakumezkoen kategoria absolutuan helmugara lehen postuan sartzen den korrikalariari puntu 1 esleitzen zaio, bigarren postuan iristen denari 2 puntu, hirugarren postuan iristen denari 3 puntu, eta horrela hurrenez hurren.
c) Klub bakoitzeko gizonezkoen talde absolutu bat eta emakumezkoen talde absolutu bat soilik inskribatu ahal izango dira ofizialki, eta talde ofizialetako kide diren korrikalariek soilik lortuko dituzte puntuak.
d) EMFko Kluben arteko Euskadiko Txapelketako sailkapena klubetako hiru korrikalari onenen puntuen batura eginez lortuko da, eta, beraz, puntu gutxien lortzen duen kluba izango da txapelduna.
e) Berdinketa gertatuz gero, ondoen sailkatutako korrikalaria duen taldeak irabaziko du.
f) Izena emateko orduan, txapelketa horretan parte hartzen duten klubek kirolari ordezkarien zerrenda aurkeztuko diete antolatzaileari eta EMFri, izen-abizenak, NANa eta jaiotze-data zehaztuz. Horretarako, EMFren inprimakia erabiliko dute. Kirolariek urte horretako federazio-lizentzia izapidetu duten kluba soilik ordezkatu ahal izango dute.
g) Klubetako kirolariek jantzi edota ekipamendu bera eraman beharko dute nahitaez, ondo identifikatuko dituena (gutxienez, lehiaketako kamiseta).
h) Kluben aurkezpen-desfile bat antolatzen bada, nahitaezkoa izango da parte hartzen duen talde osoa bertaratzea, edo, gutxienez, inskribatutako klubaren gutxieneko ordezkaritza bat.

Puntu gutxien lortzen dituen klubeko taldea Euskadiko Txapeldun izendatuko da.

2. 5- Mendiko Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Kopa

- 2.5.1.- **EMF**k antolatzaileekin egindako kontratuan ezarritako baldintzen arabera, antolatzaileek Mendiko Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Koparako baliagarriak izango diren probak antolatuko dituzte, araudi hau eta indarrean dauden arau teknikoak betez.
- 2.5.2- **Gutxienez hiru proba** egin ahal izango dira, eta horietako bakoitza bi egunetan garatuko da.
- 2.5.3.- Probak bakarkakoak izango dira.
- 2.5.4- EMFren puntuak lortzeko, parte-hartzaile euskaldun guztiek EMFren urte horretako lizentzia izango dute, lehiaketan parte hartzea estaltzen duen kirol-asegurua barne, ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuaren arabera, eta probaren epaile taldeari erakutsi beharko diote fisikoki.
- 2.5.5- Mendiko Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Kopan EMFren puntuak lortzeko, euskaldunak ez diren parte-hartzaileek EMFren lizentzia edo, hala badagokio, beren herrialdeko lizentzia izan behar dute (EMFrekiko federazio homologoa), eta erantzukizun zibileko aseguru bat eta istripu-aseguru bat kontratatuta dituztela egiaztatu beharko dute. Aseguru horiek euskal lurraldean estaldura izan behar dute, eta Euskadin indarrean dagoenaren baliokidea izango da (849/1993 Errege Dekretua, ekainaren 4koa). Fisikoki erakutsi beharko dizkiote probako epaile taldeari.
- 2.5.6- Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Kopan parte hartzeko, ezinbestekoa izango da osasun-ziurtagiri bat bat aurkeztea; zirkuitua hasi baino hiru hilabete lehenago emandakoa izan behar du gehienez, eta kirolaria mendi-lasterketetako proba honetan kirol intentsiboa egiteko gaituko du. Urte horretako zirkuituko proba guztietarako baliozkoa izango da ziurtagiri hori.
- 2.5.7- Mendiko Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Kopan, kategoria eta azpikategoria hauek bereiziko dira parte-hartzaileen artean: absolutua, beteranoa A, B eta C (gizonezkoak eta emakumezkoak). Kategoria eta azpikategoria guztietan, sailkapena balioztatzeko 4 lehiakidek hartu beharko dute parte, gutxienez. Lehiakide gutxiago izanez gero, ez da sari-banaketarik egingo kategoria eta azpikategoria horietan.

  Beteranoen A, B eta C azpikategorian lehen sailkatuentzako sariak bakarrik banatuko dira, gizonezkoetan eta emakumezkoetan.

- 2.5.8- Kategoria bakoitzerako puntuazio-sistema:

  Mendiko Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Kopa osatzen duten proba bakoitzeko parte-hartzaileei honako puntuazio hau emango zaie: 100-88-78-72-68-66-64-62-60-58-56-54-52-50-48-46-44-42-40-38-36-34-32-30-28-26-24-22-20-18-16-14-12-10-8-6-4-2-2-2-2-2-2-2-2-2-2-2-2-2-2-2… 51. postutik aurrera, 1-1-1-1-1… puntu emango dira, sailkapenaren amaierara arte. 100 puntu lehen sailkatuarentzat, 88 bigarrenarentzat, 78 hirugarrenarentzat, eta horrela, hurrenez hurren, 2 puntuko baliora iritsi arte. Azken puntuazio hori 50. postura arte mantenduko da, eta puntu 1 sailkapenaren amaierara arte.

  Mendiko Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Kopako azken probak gainerakoek baino puntu gehiago izango ditu, % 20 gehiago; hau da: 120-106-94-86-82-79-77-74-72-70-67-65-62-60-58-55-53-50-48-46-43-41-38-36-34-31-29-26-24-22-19-17-14-12-10-7-5-2-2-2-2-2-2-2-2, etab.

  Mendiko Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Kopako azken sailkapen orokorra egiteko 0 puntu emateko aukera ere izango da, eta puntuazio horrekin adieraziko da kirolariak ez

duela parte hartu Mendiko Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Kopako proba batean edo gehiagotan.

- 2.5.9.- Mendiko Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Kopan puntuatzeko eta, beraz, Mendiko Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Kopako azken sailkapen orokorrean agertzeko, honako emaitza hauek batuko dira:
  - Mendiko Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Kopak 3 proba baditu, 2 emaitza onenak batuko dira, eta kirolariari 0 puntu emango zaizkio horietako batean parte hartzen ez duenean.
  - Mendiko Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Kopak 4 proba baditu, 3 emaitza onenak batuko dira, eta kirolariari 0 puntu emango zaizkio horietako batean parte hartzen ez duenean.
  - Mendiko Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Kopak 5 edo 6 proba baditu, 4 emaitza onenak batuko dira, eta kirolariari 0 puntu emango zaizkio horietako batean parte hartzen ez duenean.

- 2.5.10- Bi lehiakideren edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, biek azken lasterketan lortutako emaitzarik onenak hartuko dira kontuan.

- 2.5.11- Mendiko Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Kopa amaitutakoan eta azken probako sari-banaketa egin ondoren, irabazleak iragarriko dira eta trofeoak, sariak eta diplomak esleituko eta banatuko zaizkie kategoria bakoitzeko txapeldunei, txapeldunordeei eta hirugarren sailkatuei.

  A, B eta C azpi-kategoria beteranoan, emakumezkoen eta gizonezkoen lehen sailkatuari bakarrik emango zaio.

- 2.5.12- Ultra Trail proben ezaugarriak

- 2.5.12.1 - **Definizioa:** Mendiko Ultra Trail Lasterketen lehiaketa behe, erdi eta goi mailako mendietan zehar egiten da, gutxienez 60 kilometroko distantzia eta 3.300 metro positiboko desnibel metatua izaten du, eta etapa bakarrean egiten da. Ultra Trail lasterketak ezin izango ditu % 40tik gorako maldak edo 2. mailatik gorako zailtasun teknikoak gainditu.

- 2.5.12.2- **Ibilbidea:** behar bezala seinaleztatuta egon behar du ibilbide osoak, eta, batez ere, bidegurutzeak eta galtzeko arriskua dagoen lekuak markatuko dira; beharrezkotzat jotzen denean, antolakuntzak pertsona bat jarriko du leku horietan. Gutxienez 10 kilometroko tarte bakoitzeko kilometroen adierazgarri bat erabiliko da, eta kilometroen zifra ondo definituta agertuko da bertan. Asfaltatutako edo zimendatutako zatiak ez dira ibilbide osoaren % 15 baino gehiago izango, hiri-inguruetako zatiak kontuan hartu gabe.

- 2.5.12.3- **Hornidura:** lasterketaren ibilbidean zehar, antolatzaileek hornidura-guneak jarriko dituzte; hala ere, EMFren Ultra Trail lasterketak autoaskitasunezkoak edota erdi-autoaskitasunezkoak izan daitezke, eta lasterketako epaile eta antolatzaileek horren berri emango diete parte-hartzaileei, lasterketa aurretik egiten den bilera teknikoan eta parte-hartzaileei

aurretiaz ematen zaien informazioan. Hornidura-kontroletan, antolakuntzak ontziak jarriko ditu, parte-hartzaileek hondakinak berorietan utz ditzaten, kontrol-gunetik 100 metrora; eta puntu horretan, hornidura-gunea amaitzen dela adierazten duen kartel bat jarriko da, eta baita beste kartel bat ere, hornidura-gunea hasten den lekua baino 100 metro lehenago.

- 2.5.12.4.- **Pasoko kontrolak:** antolakuntzak bere irizpidearen arabera ezarriko ditu pasoko kontrolak, segurtasuna, estrategia eta sarrerak kontuan hartuta. Isilpeko kontrolak ere ezarri ahal izango ditu, antolakuntzaren irizpideen arabera. Antolakuntzak, egokiak iruditzen zaizkion irizpideen arabera, kontroletatik pasatzeko gehieneko denborak ezar ditzake, erreferentziatzat orduko 4-5 kilometroko gutxieneko abiadura hartuta. Parte-hartzaileei lasterketa gehieneko denbora horietan amaitzeko aukera emateko moduan kalkulatuko dira gehieneko denbora horiek, egin daitezkeen atsedenaldiak eta otorduak kontuan hartuta.

- 2.5.12.5- **Nahitaezko materiala:** parte-hartzaile guztiek, nahitaez, honako material hau eraman behar dute gutxienez:
  - Mendiko oinetakoak edo oinetako minimalistak edo alternatiboak, horiek erabiltzeko baldintzekin, **4.2.2** puntuan adierazitakoaren arabera.
  - Mahuka luzeko haize-babeseko jaka bat, txanoarekin, korrikalari bakoitzari dagokion neurrikoa.
  - Biziraupenerako tapaki termikoa (1,20 X 2,10, gutxienez).
  - Ura gordetzeko edukiontzia, litrokoa gutxienez.
  - Kopeta-argia edo esku-argia, ordezko pilekin.
  - Atzeko posizioko argi gorria, gauez piztuta.
  - Sakelako telefonoa, piztuta eta bateria nahikoarekin.
  - Txanoa, bisera edo zapia.
  - Galtzak edo elastikoak, belaunetik beherainokoak gutxienez.

  Nahitaez eraman beharreko materiala kontrolatuko dute EMFko epaileek dortsalen kontrolean eta ibilbideko edozein lekutan; korrikalari guztiek onartu beharko dute kontrol hori, uko egiteak zehapena jasotzea edo lasterketatik deskalifikatzea ekar baitezake.

  - **Material gomendagarria:**
    - Eskularruak
    - Txilibitua
    - GPSa edo iparrorratza

- 2.5.12.6- **Parte-hartzaileen segurtasuna:** antolakuntzak honako zerbitzu hauek eskainiko ditu:
  - Osasun-laguntzako zerbitzuak, anbulantziak eta sendagile bat irteeran eta helmugan, gutxienez.
  - Erratz-talde bat, probaren norabide berean ibilbide osoa oinez egingo duena.
  - Kontrolen, erratz-taldearen, irteerako gunearen, helmugaren eta lasterketako zuzendariaren arteko komunikazioa.
  - Larrialdiko plana eta parte-hartzaileen ebakuazioa, lasterketa garaian.

- 2.5.12.7- **Ibilbide alternatiboa:** antolakuntzak ibilbide alternatibo bat prestatuta izan behar du gutxienez, baldintza meteorologikoak arriskutsuak badira, lasterketa beste bide batetik egiteko aukera izateko eta, horrela, korrikalarien segurtasuna bermatzeko.

- 2.5.12.8- **Materialaren kontrola:** proba hasi aurretik, antolakuntzak dortsalak eta nahitaez eraman beharreko materiala egiaztatuko ditu, eta parte-hartzaileak eremu itxi batera pasatuko dira, irteera unera arte. Irteera baino minutu batzuk lehenago, antolakuntzak eguraldiaren iragarpena, azken orduko berriak eta ingurumena zaintzeak duen garrantzia gogoraraziko dizkie parte-hartzaile guztiei.

- 2.5.12.9- **Korrikalari bati lasterketa utzaraztea:** EMFko epaileek edota sendagileak lehiaketa uzteko esan diezaiokete korrikalari bati, eta dortsala kendu ahal izango diote, nekeagatik edota proban jasandako higatzeagatik gaitasun fisikoak edo teknikoak murriztuta dituela ikusten dutenean, horrela, korrikalariaren osasuna bermatzeko.

2.6.- Elur gaineko Mendi Lasterketen Euskadiko Txapelketak (Snowrunning)

2.6.1.- **EMF**k antolatzaileekin egindako hitzarmenean ezarritako baldintzen arabera, antolatzaileek EMFren Elur gaineko Mendi Lasterketen Euskadiko Txapelketak antolatuko dituzte, araudi hau eta indarrean dauden arau teknikoak betez.

- 2.6.2- EMFren Elur gaineko Mendi Lasterketen Euskadiko Txapelketek proba bakarra izango dute, eta proba bakoitza egun bakarrean egingo da.

- 2.6.3- Lerroan kokatuta egingo da proben irteera. Elkarren segidan, lerro bat baino gehiago jarri ahal izango dira, ibilbide bakoitzerako bat, edota sailkapenaren edo lehen postuen arabera ezarri ahal izango dira lerroak.

- 2.6.4- Elur gaineko Mendi Lasterketen Euskadiko Txapelketan parte hartu ahal izateko, parte-hartzaile euskaldun guztiek EMFren urte horretako lizentzia izan beharko dute, lehiaketan parte hartzea estaltzen duen kirol-asegurua barne, ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuaren arabera, eta probako epaile taldeari erakutsi beharko diote fisikoki.
  Elur gaineko Mendi Lasterketen Euskadiko Txapelketan parte hartzeko, euskaldunak ez diren parte hartzaileek EMFren lizentzia edo dagokien herrialdeko lizentzia (EMFrekiko federazio homologoa) izan behar dute, eta erantzukizun zibileko aseguru bat eta istripu-aseguru bat kontratatuta dituztela egiaztatu beharko dute. Aseguru horiek euskal lurraldean estaldura izango dute, eta Euskadin indarrean dagoenaren baliokidea izango da (849/1993 Errege Dekretua, ekainaren 4koa). Fisikoki erakutsi beharko dizkiote probako epaile taldeari.

  Lehiaketa amaitutakoan, 2 sailkapen egingo dira: batean, parte hartu duten kirolari guztiak agertuko dira, eta probako sariak sailkapen horren arabera emango dira; bestean, EMFren lizentzia duten Euskal Herriko parte-hartzaileak bilduko dira, eta Euskadiko Txapelketako podiuma sailkapen horren arabera osatuko da.

- 2.6.5- Elur gaineko Mendi Lasterketen Euskadiko Txapelketaren ondorioetarako, gutxienez 4 lehiakidek parte hartu behar dute kategoria eta azpikategoria guztietan, sailkapena baliozkotzeko.

Lehiakide gutxiago izanez gero, ez da sari-banaketarik egingo kategoria eta azpikategoria horietan.

- 2.6.6- Elur gaineko Mendi Lasterketen Euskadiko Txapelketa amaitutakoan, irabazleak iragarriko dira eta trofeoak, sariak eta diplomak esleituko eta banatuko zaizkie kategoria bakoitzeko txapeldunei, txapeldunordeei eta hirugarren sailkatuei.

- 2.6.7 - EMFk egoki baderitzo, proba horren gainean "Kluben arteko Elur gaineko Mendi Lasterketen Euskadiko Txapelketa" egingo da, honako irizpide hauen arabera:

EMFko kluben modalitatea

EMFko Kluben arteko Elur gaineko Mendi Lasterketen Euskadiko Txapelketa EMFko kide diren klubetako kideek osatutako taldeentzako lehiaketa esklusiboa da, eta, beraz, urte horretako EMFren lizentzia duten kirolarientzat, haien nazionalitatea edozein dela ere. Izena klubek bakarrik eman dezakete, Euskadiko Kluben arteko Txapelketa denean.

a) Taldeak gizonezko absolutuak eta emakumezko absolutuak izango dira, eta **gutxienez 4 eta gehienez 8 kidek** osatuko dituzte.
b) **Kide bakoitzari** puntuak emateko orduan, kontuan izango da kirolari bakoitzak helmugara sartzean lortutako postua, bai gizonezkoen kategoria absolutuan eta bai emakumezkoen kategoria absolutuan. Puntuazio-zerrenda horretan, Kluben arteko Euskadiko Txapelketan izena eman duten kirolariak bakarrik hartuko dira kontuan; beraz, gainerako parte-hartzaileak ez dira kontuan hartuko. Adibidea: gizonezkoen kategoria absolutuan edo emakumezkoen kategoria absolutuan helmugara lehen postuan sartzen den korrikalariari puntu 1 esleitzen zaio, bigarren postuan iristen denari 2 puntu, hirugarren postuan iristen denari 3 puntu, eta horrela hurrenez hurren.
c) Klub bakoitzeko gizonezkoen talde absolutu bat eta emakumezkoen talde absolutu bat soilik inskribatu ahal izango dira ofizialki, eta talde ofizialetako kide diren korrikalariek soilik lortuko dituzte puntuak.
d) EMFko Kluben arteko Euskadiko Txapelketako sailkapena lau korrikalari onenen puntuen batura eginez lortuko da. Horrenbestez, puntu **GUTXIEN** lortzen duena izango da klub txapelduna.
e) Berdinketa gertatuz gero, ondoen sailkatutako korrikalaria duen taldeak irabaziko du, edo ondoen sailkatutako bi edo hiru korrikalariak dituena, berdinketa errepikatzen bada.
f) Izena emateko orduan, txapelketa horretan parte hartzen duten klubek kirolari ordezkarien zerrenda aurkeztuko diete antolatzaileari eta EMFri, izen-abizenak, NANa eta jaiotze-data zehaztuz. Horretarako, EMFren inprimakia erabiliko dute. Kirolariek urte horretako federazio-lizentzia izapidetu duten kluba soilik ordezkatu ahal izango dute.
g) Klubetako kirolariek jantzi edota ekipamendu bera eraman beharko dute nahitaez, ondo identifikatuko dituena (gutxienez, lehiaketako kamiseta).
h) Kluben aurkezpen-desfile bat antolatzen bada, nahitaezkoa izango da parte hartzen duen talde osoa bertaratzea, edo, gutxienez, inskribatutako klubaren gutxieneko ordezkaritza bat.

Puntu gutxien lortzen dituen klubeko gizonezkoen edo emakumezkoen talde absolutua Euskadiko Txapeldun izendatuko da.

· 2.6.8- Materiala eta ekipamendua

Nahitaezko materiala

Nahitaezkoa izango da elurretarako kate homologatuak erabiltzea korrika egiteko oinetakoetan. Izotz eta elur gaineko lehiaketetarako iltze bereziak dituzten mendiko oinetakoak erabili ahal izango dira.
Neguan goi-mendiko kirola egiteko arropa egokia erabiltzea derrigorrezkoa izango da: mahuka luzeko elastiko termikoa, mahuka luzeko jaka iragazgaitza txanoarekin, orkatilarainoko praka termiko luzeak, eskularruak eta txanoa.
Eguzkitako betaurrekoak, probak egunez direnean.
Proba arratsaldean edo gauean denean, argia eramango da aurrealdean, ordezko pilekin, bai eta atzeko argi gorria ere.
Tapaki termikoa.
Sakelako telefonoa piztuta eta bateria nahikoarekin.

Material gomendagarria

Gps bat, bateria nahikoarekin eta antolatzaileek emandako ibilbidearen track-arekin.
Makilak: antolatzaileek makilak erabiltzea baimentzen badute, honela aterako dira parte-hartzaileak: makilak esku batean bertikalean hartuta, puntak lurrera begira dituztela. Ez dira makilak erabiliko antolatzaileek horretarako bereziki jarritako seinalea gainditu arte. Seinalea irteeratik 150 metrora egongo da, gutxi gorabehera.

Debekatutako materiala

Ez dago baimenduta atletismoko tartanerako iltze-zapatilak erabiltzea, ez eta mendiko kranpoiak, futboleko botak edo antzekoak ere. Entzungailuak erabiltzea ere debekatuta dago.

· 2.6.9 – Ibilbidea

EMFk baimendutako lehiaketa guztiak elurtutako goi-mendietan egingo dira, nagusiki eski-estazio baten eremu eskiagarrian. Ibilbideek behar bezala trazatuta, markatuta, balizatuta eta kontrolatuta egon behar dute. Ibilbidearen trazadura eski-estazioko elur-makinarekin egingo da. Baliozkoa izateko, ibilbidearen 2/3 gutxienez elurtuta egon behar da. Antolatzaileak bilera teknikoan emango du gorabehera horien berri.

Elur gaineko mendi-lasterketetarako desnibelak eta distantziak (± % 10)

- **Kategoria absolutua:**
  - Gutxieneko distantzia: 9 km
  - Gutxieneko desnibel positibo metatua: 300 m
- **Gazteen eta junior kategoriak:**
  - Distantzia: 6 km-tik 12 km-ra bitartean
  - Gutxieneko desnibel positibo metatua: 200 m eta 700 m artean

Segurtasun-arrazoiengatik eta baldintza txarren aurrean soilik aldatu ahal izango dira desnibelak eta distantziak, antolatzailearen eta EMFko epaile taldearen onespenarekin.

· 2.6.10 – Lehiaketaren gainerako alderdiak

EMFren Mendi Lasterketen Araudi honetan deskribatutako gainerako puntuen arabera arautuko dira.

2.7-.- Elur gaineko Mendi Lasterketen Euskadiko Kopa (Snowrunning)

- 2.7.1.- EMFk antolatzaileekin egindako hitzarmenean ezarritako baldintzen arabera, antolatzaileek Elur gaineko Mendi Lasterketen Euskadiko Koparako baliagarriak izango diren probak antolatuko dituzte, araudi hau eta indarrean dauden arau teknikoak betez.
- 2.7.2- Gutxienez hiru proba eta gehienez sei egin ahal izango dira, eta horietako bakoitza egun bakarrean garatuko da.
- 2.7.3.- Probak bakarkakoak izango dira.
- 2.7.4- Lerroan kokatuta egingo da proben irteera. Elkarren segidan, lerro bat baino gehiago jarri ahal izango dira, ibilbide bakoitzerako bat, edota sailkapenaren edo lehen postuen arabera ezarri ahal izango dira lerroak.

2.7.5- EMFren puntuak lortzeko, parte-hartzaile euskaldun guztiek EMFren urte horretako lizentzia izango dute, lehiaketan parte hartzea estaltzen duen kirol-asegurua barne, ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuaren arabera, eta probaren epaile taldeari erakutsi beharko diote fisikoki.

2.7.6- Elur gaineko Mendi Lasterketen (Snowrunning) Euskadiko Kopan EMFren puntuak lortzeko, euskaldunak ez diren parte-hartzaileek EMFren lizentzia edo, hala badagokio, beren herrialdeko lizentzia izan behar dute, eta erantzukizun zibileko aseguru bat eta istripu-aseguru bat kontratatuta dituztela egiaztatu beharko dute. Aseguru horiek euskal lurraldean estaldura izan behar dute, eta Euskadin indarrean dagoenaren baliokidea izango da (849/1993 Errege Dekretua, ekainaren 4koa). Fisikoki erakutsi beharko dizkiote probako epaile taldeari.

- 2.7.7- Elur gaineko Mendi Lasterketen (Snowrunning) Euskadiko Koparen ondorioetarako, gutxienez 4 lehiakidek parte hartu behar dute kategoria eta azpikategoria guztietan, sailkapena baliozkotzeko. Lehiakide gutxiago izanez gero, ez da sari-banaketarik egingo kategoria eta azpikategoria horietan.
- 2.7.8.- Kategoria bakoitzerako puntuazio-sistema:

Elur gaineko Mendi Lasterketen (Snowrunning) Euskadiko Kopa osatzen duten proba bakoitzeko parte-hartzaileei honako puntuazio hau emango zaie: 100-88-78-72-68-66-64-62-60-58-56-54-52-50-48-46-44-42-40-38-36-34-32-30-28-26-24-22-20-18-16-14-12-10-8-6-4-2-2-2-2-2-2-2-2-2-2-2-2-2,… 51. postutik aurrera, 1-1-1-1-1… puntu emango dira, sailkapenaren amaierara arte. 100 puntu lehen sailkatuarentzat, 88 bigarrenarentzat, 78 hirugarrenarentzat, eta horrela, hurrenez hurren, 2 puntuko baliora iritsi arte. Azken puntuazio hori 50. postura arte mantenduko da, eta puntu 1 sailkapenaren amaierara arte.

Elur gaineko Mendi Lasterketen (Snowrunning) Euskadiko Kopako azken probak gainerakoek baino puntu gehiago izango ditu, % 20 gehiago; hau da: 120-106-94-86-82-79-77-74-72-70-67-65-62-60-58-55-53-50-48-46-43-41-38-36-34-31-29-26-24-22-19-17-14-12-10-7-5-2-2-2-2-2-2-2-2, etab.

Elur gaineko Mendi Lasterketen (Snowrunning) Euskadiko Kopako azken sailkapen orokorra egiteko 0 puntu emateko aukera ere izango da, eta puntuazio horrekin adieraziko da kirolariak ez duela parte hartu Elur gaineko Mendi Lasterketen (Snowrunning) Euskadiko Kopako proba batean edo gehiagotan.

- 2.7.9.- Elur gaineko Mendi Lasterketen (Snowrunning) Euskadiko Kopan puntuatzeko eta, beraz, Elur gaineko Mendi Lasterketen (Snowrunning) Euskadiko Kopako azken sailkapen orokorrean agertzeko, honako emaitza hauek batuko dira:
    - Elur gaineko Mendi Lasterketen (Snowrunning) Euskadiko Kopak 3 proba baditu, 3 probatan lortutako emaitzak batuko dira, eta kirolariari 0 puntu emango zaizkio

horietako batean parte hartzen ez duenean.

- Elur gaineko Mendi Lasterketen (Snowrunning) Euskadiko Kopak 4 proba baditu, lortutako 3 emaitza onenak batuko dira. Kirolariari 0 puntu emango zaizkio Elur gaineko Mendi Lasterketen (Snowrunning) Euskadiko Kopako probaren batean parte hartzen ez duenean.
- Elur gaineko Mendi Lasterketen (Snowrunning) Euskadiko Kopak 5 edo 6 proba baditu, lortutako 4 emaitza onenak batuko dira. Kirolariari 0 puntu emango zaizkio Elur gaineko Mendi Lasterketen (Snowrunning) Euskadiko Kopako probaren batean parte hartzen ez duenean.

Elur gaineko Mendi Lasterketen (Snowrunning) Euskadiko Kopa garatzen ari den bitartean, puntu gehien dituena izango da liderra (gizona zein emakumea), 2, 3 edo 4 emaitza onenak batuta, ordura arte egindako proben kopuruaren arabera eta Elur gaineko Mendi Lasterketen (Snowrunning) Euskadiko Kopa osatzen duten proben kopuruarekin bat etorriz.

- 2.7.10- Bi lehiakideren edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, azken lasterketan lortutako emaitzarik onena hartuko da kontuan.
- 2.7.11- Elur gaineko Mendi Lasterketen (Snowrunning) Euskadiko Kopa amaitutakoan eta azken probako sari-banaketa egin ondoren, irabazleak iragarriko dira eta trofeoak, sariak eta diplomak esleituko eta banatuko zaizkie kategoria bakoitzeko txapeldunei, txapeldunordeei eta hirugarren sailkatuei.

2.8- Estatuko beste lehiaketa eta herri-lasterketa batzuk

· **Lehiaketen Arloak** hala eskatzen duen beste edozein proba arautu ahal izango du, hala nola erlojuaren aurkakoa, igoera, jaitsiera, taldekako kopa, taldekako edo txandakako txapelketa, etapakako txapelketa, Ultra Extrem txapelketa (+ 150 km-ko distantzia eta 6.000 m-tik gorako desnibel metatua), skyrunning probak, etab.

Herri-lasterketak autonomia- eta toki-mailako lehiaketak izango dira, betiere mendiko eta eskaladako kirolen federazio-esparru autonomikoaren barrukoak, mendi-lasterketen barruan kirol-sustapeneko izaera nabarmena dutenak. Horregatik, proba horiek 8.2.4. puntuko ibilbideen deskribapenean zehaztutako mugen azpitik egon daitezke distantzietan eta desnibeletan, bereziki lerroko lehiaketetan. EMFk onartu egiten ditu, baina ez ditu antolatzen.

2.9- Kategoriak

Parte-hartzaileak honako kategoria eta azpikategoria hauetan banatuko dira:

- Gizonezkoen eta emakumezkoen kategoriak: kadeteak, gazteak, juniorrak eta absolutua.
  - Kadeteak: 15 eta 16 urte, hau da, erreferentzia-urtean 17 urte ez betetzea.
  - Gazteak: 17 eta 18 urte, hau da, erreferentzia-urtean 19 urte ez betetzea.
  - Juniorrak: 19 eta 20 urte, hau da, erreferentzia-urtean 21 urte ez betetzea.
  - Kategoria absolutua: 21 urtetik aurrera (erreferentzia-urtean bete behar dituzte).

- Gizonezkoen eta emakumezkoen azpikategoriak: Beteranoa A, B eta C.

- Beteranoen A azpikategoria:
    - 40 urtetik 49 urtera arteko gizonezkoak eta emakumezkoak, urte horretan 50 urte betetzen ez dituztenak.
- Beteranoen B azpikategoria:
    - 50 urtetik 59 urtera arteko gizonezkoak eta emakumezkoak, urte horretan 60 urte betetzen ez dituztenak.
- Beteranoen C azpikategoria:
    - 60 urtetik aurrerako gizonezkoak eta emakumezkoak, urte horretan 60 urte betetzen dituztenak.

Denboraldi osorako kontuan hartuko den adina parte-hartzaileak lehiaketa izango den urte horretako abenduaren 31n duena izango da.

Beteranoen A, B eta C azpikategorietan gizonezkoen eta emakumezkoen lehen sailkatuei bakarrik emango zaizkie sariak.

3. Antolakuntza

EMFren Mendi Lasterketen Arloa arduratuko da erkidegoaren mailako mendi-lasterketekin lotutako alderdi guztiak antolatzeaz.
Mendi Lasterketen Arloak aginte teknikoa du, **EMFk** antolatutako edo onetsitako autonomia-erkidegoko mendi-lasterketen lehiaketa guztiei dagokienez.
Mendi Lasterketen Arloa arduratuko da mendiko klubek, erakundeek eta enpresek autonomia-erkidegoan lehiaketaren bat antolatzeko egindako eskariak jasotzeaz eta horiei erantzuna emateaz, nahiz eta lehiaketa hori Euskaditik kanpo garatu. Eskaerarekin batera, dagokion federazio autonomikoaren oniritzia aurkeztu beharko da.
Autonomia Erkidegoko lehiaketa ofizial guztiak araudi honetan oinarrituta antolatuko dira.
Araudian biltzen ez diren gaiei **EMFren Mendi Lasterketen Arloak** emango die erantzuna.
Espezialitatearekin lotuta dauden beste federazio batzuen egutegian txertatuta egon daitezke autonomia-erkidegoko lehiaketa ofizialak.

Aparteko kasuetan, eta horretarako arrazoi sendoak ematen badira, **Mendi Lasterketen Arloak** araudi honetan zehaztutako desnibelen, distantzien edota ehunekoen azpitik edo gainetik dauden ibilbideak onar ditzake.

3.1.- Lehiaketaren kontrola: epaile taldea eta ikuskatzaileak.

EMFren **Lehiaketako Epaileen Batzordeak** honako pertsona hauek izendatuko ditu edozein lehiaketa kontrolatzeko:

A. Epaimahaiko lehendakaria.
B. Ibilbideko epailea.
C. Izena emateko, irteerako eta helmugako epailea.
D. Ingurumen epailea EMFk izendatu beharko ditu honako hauek:
E. EMFren ordezkaria.

Pertsona horiek, ordezkariak eta epaileek, Lasterketako Batzordea osatzen dute.

A. Epaimahaiko lehendakaria.

Epaimahaiko lehendakariaren zereginak: esleitu zaion lasterketaren arduradun nagusia izango da, eta lasterketarekin lotutako alderdi guztien aurretiazko jarraipena egingo du, antolatzaileekin harremanetan egongo da, dena normaltasunez garatzen ari dela eta araudia betetzen dela eta beteko dela ziurtatzeko eta zalantzak argitzeko; lehiaketa-eguna iristen denean, dena kontrolatuta izaten saiatuko da.
Epaileei zereginak banatuko dizkie, lehiaketaren garapen osoa gainbegiratuko du, eta lehiaketako akta sinatuko du.
Epaimahaiko lehendakariak Mendi Lasterketen Arloko arduradunari informazioa emango dio, lehiaketa bakoitza ongi garatzen ari dela bermatzeko; eta, horretarako, harremanetan egongo dira etengabe.
Epaimahaiko lehendakariak EMFk Mendi Lasterketen epaileei emandako titulazioa izan behar du.

B. Ibilbideko epailea

EMFren Mendi Lasterketen Arloak hala eskatzen duenean, zailtasunagatik, luzeragatik edo iritsiezintasunagatik lehiaketako ibilbidea gainbegiratzea zailagoa denean, ibilbideko bi ikuskatzaileri esleitu ahal izango zaie zeregin hori.

Ibilbidearen trazadura gainbegiratzen du, batez ere segurtasunari, markaketari, pasoko kontrolen nahiz informazio-kontrolen egoerari eta soka finkoen instalazioei begira. Ibilbidea antolatzeaz arduratu den taldeko pertsona batek lagunduko dio.

Ibilbideko epaileak EMFk Mendi Lasterketen epaileei emandako titulazioa izan behar du.

C. Izena emateko, irteerako eta helmugako epailea

Lehiaketako parte-hartzaileak, irteeraren kokapena eta ingurua eta helmugakoa, materialen kontrola eta dopin-kontrola gainbegiratzen ditu.

Parte-hartzaile guztiek federazioaren lizentzia dutela gainbegiratzen du (2. puntuko parametroen arabera); eta antolatzaileek Euskadiko Kopan eta Txapelketan puntuak lortzeko ezarritako baldintzak betetzen dituztenak soilik agertzen diren zerrenda espezifiko bat, kategoriatan sailkatua, egin dezaten saiatzen da.

Irteera baliozkotzat ematen du, gainbegiratu egiten du eta antolatzaileek parte-hartzaileen denborak ondo hartu dituztela egiaztatzen du.

Antolatzaileekin batera, azken sailkapena egiten du, eta antolatzaileek Euskadiko Kopan eta Txapelketan puntuak lortzeko zehaztutako baldintzak betetzen dituztenak soilik agertzen dituen zerrenda espezifiko bat, kategoriatan sailkatua, egin dezaten saiatzen da. Behin-behineko sailkapena sariak banatu baino 30 minutu lehenago jendaurrean jarrita egon dadin zainduko du.

Lasterketako Batzordea informatzen eta aholkatzen du.

Izena emateko, irteerako eta helmugako epaileak EMFk Mendi Lasterketen epaileei emandako titulazioa izan behar du.

D. Ingurumen-epailea

Lasterketaren antolatzaileek ingurumen-epailearen irudia jaso behar dute, eta hura arduratuko da ingurumen-jardunbide egokiak betetzearekin lotutako alderdi guztien jarraipena egiteaz, bai antolakundearen aldetik, bai parte-hartzaileen aldetik. Pertsona horiek berariazko prestakuntza izan behar dute, probaren ingurumen-ebaluazioa egin ahal izateko eta behar bezala garatzen dela ikuskatzeko. EMFk ikastaroak antolatzen ditu mendi-lasterketetarako ingurumen-epaile titulua lortzeko.

Ingurumen-epaileak ibilbidearen kontserbazioaren eta hauskortasunaren ikuspegitik gatazkatsuenak diren lekuetan kokatu beharko dira (lasterbideak izan ditzaketen eremuak, eremu sentikorrak, hezeguneak, errekak, etab.). Kokapena ingurumen-administrazioarekin adostu behar da.

Ingurumen-epaileak seinaleztapen-sistema egokia, behin-behinekoa eta erraz berreskura daitekeena dela gainbegiratuko du. Ahal dela, aurretik dagoen seinaleztapena erabiliko da, eta ez dira onartu behar pintura, karea edo igeltsua duten seinale iraunkorrak.

Antolatzaileek ingurumen-zaintza txertatu beharko lukete arbitraje-irizpideetan (landan zehar korrika egitea, seinaleztatzea, hondakinak botatzea, etab.), baita araudia betetzen ez duten parte-hartzaileen zehapenak ere.

E. EMFren ordezkaria

Lasterketa Batzordeko kide izango da, eta lehiaketako bilera eta saio guztietan parte hartuko du. Horrez gain, sari-banaketa gainbegiratuko du.

3.2- Antolakuntzako kideak

Antolakuntzak honako funtzio hauek bete behar ditu (horren eta EMFren artean sinatutako hitzarmenean berariaz besterik adierazi ezean):

- Lehiaketa egin aurretiko antolamendua:
  - Administrazioa.
  - Kontrolak.
  - Ibilbidearen trazadura, markaketa eta ekipamenduak.
  - Informazio meteorologikoa.
  - Irteerako eta helmugako guneen ekipamendua.
  - Ibilbidea markatuta dakarren mapa, eta beronen profila.
  - Probaren iragarpena bermatzea, proba egin baino 30 egun lehenagotik.
- Lehiaketarako onetsitako lagun guztiei harrera egitea eta erregistratzea (lehiakideak, laguntzaile teknikoak, EMFko teknikariak, prentsa, etab.).
- Irteerako guneko, helmugako eta eremu mugatuetako sarrerak erregistratzea eta kontrolatzea, gainbegiratzaileen jarraibideak betez.
- Pasoko eta helmugako kontroletan denborak hartzea.
- Lehiaketako ibilbide osoan segurtasunaz arduratzea.
- Lehiaketa uzten duten lehiakideei laguntzea.
- Gainbegiratzaileei, prentsari eta komunikabideei zerbitzuak eskaintzea.
- Zerbitzu medikoak, salbamendua eta hitzartutako beste ekipamendu batzuk eskaintzea.
- Irekierako ekitaldiak, sari-banaketak eta itxierako ekitaldiak antolatzea.
- Gainbegiratzaileei beharrezko alderdi guztietan laguntzea.

OHARRA:

Antolakuntzak lehiakideentzako aldagela, jantzitegia eta komuneko gune bat (dutxekin) aurreikusi beharko ditu lehiaketaren aurretik eta ondoren.

3.3.- Lehiaketako epaimahaia

Lehiaketako epaimahaia organo aholku-emailea da, eta araudi honetako 7. atalean aurreikusten denaren arabera jokatuko du.

Osaera:

- Probako epaileak.
- Probako zuzendaria (edo zuzendari teknikoa).
- EMFren ordezkaria.
- Kirolarien ordezkari bat (zozketa bidez aukeratuko da, lasterketako lehen 20 sailkatuen artean.

Zereginak:

Lehiaketako epaimahaiak lehiaketaren garapenaren ondorioz izan daitezkeen erreklamazioei erantzun beharko die, lasterketan bertan eta lasterketaren dataren barnean. Erreklamazio bat gertatzen den unean bilduko da epaimahaia.

4. Lehiaketa Araudia korrikalarientzat

4.1- Lehiaketarako izena ematea

- 4.1.1- Proban parte hartzeko, ezinbestekoa da izena ematea, eta izena emateko epea antolatzaileek erabakitzen dutenean itxiko da. Antolatzaileek proban parte hartzeko izen-emate kuota bat jarri ahal izango dute.

- 4.1.2- Behin-behineko nahiz behin betiko izen-emateetarako, antolatzaileek honako agiri hauek eskatuko dizkiete parte-hartzaileei:
    - Nortasun Agiri Ofiziala = pasaportea, NANa, gidabaimena..., edo atzerritarrentzako agiri baliokidea.
    - EMFren lizentzia (urte horretakoa), lehiaketan parte hartzeko kirol-asegurua barne, ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuaren arabera, edo lizentzia baliokidea atzerritarren kasuan (ikusi 2.1.6, 2.2.4, 2.3.2.5, 2.3.3.2, 2.4.2 puntuak).

- 4.1.3- Antolatzaileek ez diete utziko parte hartzen baldintza horiek betetzen ez dituzten kirolariei.

- 4.1.4- Lehiaketa-kirolerako osasun-ziurtagiria eskatu ahal izango dute antolatzaileek; ziurtagiri horrek mendi-lasterketen lehiaketa-denboraldia hasi baino hiru hilabete lehenago emandakoa izan behar du gehienez. Mendiko Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Txapelketaren eta Koparen kasuan, antolatzaileek nahitaez eskatu behar dute ziurtagiri hori proban izena eman ahal izateko.

- 4.1.5- Lehiakideak hobeto kontrolatzeko, antolatzaileek federazio-lizentziak jasoko dituzte aldi baterako; horrek lehiakideak kontrolatzen lagunduko du, eta epaileek parte-hartzaileen zerrendak ikuskatzea erraztuko du. Lizentzia lehiakideari itzuliko zaio proba amaitzean.

- 4.1.6- Antolatzaileek aldi berezi bat ezarri ahal izango dute EMF kirolari federatuek bakarrik izena eman ahal izateko; horrela, interesdunak parte hartzeko aukerarik gabe ez geratzea bermatuko da. Aldi berezi hori izen-ematea ireki eta lehen 30 egunetan izango da, eta epe horretan EMFn federatutako kirolariek soilik eman ahal izango dute izena. Aldi berezi hori amaitzean, gainerako parte-hartzaileek izena eman ahal izango dute, baldin eta antolatzaileak EMFren lizentziarik gabeko korrikalariak onartzen baditu. Izen-ematea antolatzaileak zehazten duenean irekiko da.

4.2- Materiala eta ekipamendua

- 4.2.1- Antolatzaileek edo Lasterketako Batzordeak egoki baderitzote, zehaztutako ekipoa eta materiala eraman beharko dituzte lehiakideek, bereziki mahuka luzeko haizetik babesteko jaka txanoduna, korrikalariari dagokion neurrikoa. Antolatzaileek makilen erabilera ere baimendu edo debekatu ahal izango dute, eta inola ere ez da baimenduko elurretako erraketak edo eskiak erabiltzea. Proba bertikaletan, lerrokoetan eta ultran entzungailuak ez erabiltzea gomendatzen da. Ezin da aurikularrik erabili proba bertikaletan, linean eta ultran.

- 4.2.2- Nahitaezkoa izango da *trail running*eko zapatilak erabiltzea. Korrikalariek oinetako minimalistekin edo alternatiboekin (*Snowrunning* proban izan ezik) parte hartu ahal izango dute,

beren erantzukizun esklusiboaren pean, aldez aurretik erantzukizunetik salbuesteko agiria, antolatzaileek eskuragarri jarritakoa, sinatu ondoren. Agiri hori Araudi honen 2. eranskinean dago. Oinetako minimalistek edo alternatiboek oinaren zati bat aire zabalean libre uzten dutenean (adibidez, sandalien kasuan), oinarentzako babes berezi batekin osatu beharko dira, baldin eta lasterketak 2.000 m-tik gora egiten badu uneren batean edo, Lasterketa Batzordearen irizpidearen arabera, eguneko aurreikuspen meteorologikoan iragarritako tenperatura baxuengatik eta baldintza txarrengatik oinak gehiago babestea komeni bada (neoprenozko eskarpinak, galtzerdi termikoak edo ordezko *trail running*eko oinetakoak; korrikalariaren motxilan eraman beharko dira, segurtasun-arrazoiengatik, eta lehiaketako epaileek berrikusi ahal izango dituzte material-kontroletan).

- 4.2.3- Mendiko Ultra Trail Lasterketen Euskadiko Txapelketak, 2.4.9. puntuan, mendi-lasterketen proba horretarako berariazko materiala zehazten du.

4.3- Materialaren kontrola eta hornidura gainbegiratzea

- 4.3.1- Irteera-eremuan sartu aurretik, dortsalaren eta materialaren kontrola egingo da. Materialaren inguruko baldintzak **4.2** atalean zehaztu dira, eta betetzen ez dituzten parte-hartzaileei ez zaie proban parte hartzen utziko.

- 4.3.2 - Kontrol guztietan gainbegiratu ahal izango da antolatzaileek baimendutako materiala, eta dortsala manipulatuz gero edo norbaiti utziz gero, deskalifikatu egingo da korrikalaria.

- 4.3.3.- Erabat debekatuta dago probak dirauen bitartean edonoren (beste korrikalari bat edo beste norbait) laguntza edo hornigaiak hartzea (antolatzaileek xede horretarako ezarritako puntuetan hartzen direnak salbu; informazio-bileran emango da puntu horien berri).

- 4.3.4 - Aurreko puntuan adierazitakoari jarraiki, antolatzaileek ezarritako puntuaren aurretik eta ondoren, 100 metro inguruko erradioan jaso ahal izango da laguntza.

4.4- Lehiakideen jokaera orokorra

- 4.4.1- Arriskuan dagoen edo istripuren bat izan duen korrikalariari laguntzeko betebeharra dute korrikalariek, eta, berehala, gertuen dagoen kontroleko arduradunei horren berri emango diete. Laguntzarik ematen ez bada, laguntza eman ez duen korrikalaria berehala deskalifikatuko da.

- 4.4.2 Lehiakideek proba egingo den eremuko ingurumena errespetatu behar dute, eta lehiakide bakoitzak berarekin eramango ditu zaborrak, latak, paperak eta horrelakoak helmugara edo antolatzaileak zaborrak uzteko ezarritako tokira iritsi arte. Lehiaketan zehar makila bat hautsiz gero, kontrolean entregatu ahal izango da. Prestatu gabeko gune batean uzten edo botatzen dituen korrikalaria deskalifikatu egingo da.

- 4.4.3 - Korrikalari orok antolatzaileek markatutako ibilbidea egin behar du; ibilbide hori errespetatzen ez bada edo ezarritako kontrolen batetik igarotzen ez bada, korrikalaria zigortuko edo deskalifikatuko da.

- 4.4.4- Parte-hartzaileek, ibilbidean zehar, kontroletan dauden kideen jarraibideak bete behar dituzte.

- 4.4.5 - Parte-hartzaileek eskatzen zaizkien dopin-kontrolak egin beharko dituzte nahitaez.

- 4.4.6- Lehiakideek kiroltasunez jokatu behar dute uneoro, eta errespetuz jokatuko dute gainerako kirolariekin, epaileekin, ikuskatzaileekin, kontroletako kideekin eta antolatzaileekin.

- 4.4.7- Parte-hartzaile orok LEHIAKETA-ARAUDIA ezagutu eta errespetatu behar du, eta, lehiaketa aurretik edota lehiaketa garaian, antolatzaileen eskumenetik kanpo dauden arrazoiengatik Lasterketa Batzordeak har ditzakeen neurriak onartuko ditu.

- 4.4.8- Korrikalariak berak nahi duenean utzi dezake proba, baina puntu hauek kontuan hartuko ditu:
  Kontrol batean utziko du, eta dortsala entregatuko du.
  Lehiakideak bere gain hartzen du erantzukizun osoa, bere borondatez proba uzten duenetik edo deskalifikatzen dutenetik.

4.5.- Korrikalari bat edo talde bat zigortzea edo deskalifikatzea

- 4.5.1- Korrikalari edo talde bat zigortu edo deskalifikatu egingo da ondoren adierazitakoen arteko bat egiten badu:
  - Ibilbide balizatua edo ibilbide-seinaleztapena ez errespetatzea, bidea mozteko = **3 minututik deskalifikaziora**.
  - Baimendutako guneetatik kanpo edozein pertsonaren aldetik (lehiakidea izan edo ez) laguntza edo hornigaiak jasotzea (sorospena izan ezik) = **3 minututik deskalifikaziora**.
  - Dortsala ez janztea edo moztea = **deskalifikazioa.**
  - Antolatzaileek jarritako materialaren markei jaramonik ez egitea, markak kentzea edo aldatzea = **deskalifikazioa**.
  - Korrikalari berak bi aldiz abiatze faltsua egitea = **deskalifikazioa**.
  - Ibilbidean zehar zaborrak botatzea = **3 minututik deskalifikaziora**.
  - Beste korrikalari bati aurrea hartzea eragoztea edo nahita oztopatzea = **3 minututik deskalifikaziora**.
  - Kontrol bakoitzean antolatzaileek eskatutako materiala ez eramatea = **3 minututik deskalifikaziora**.
  - Antolatzaileen eta epaileen jarraibideei kasurik ez egitea = **3 minututik deskalifikaziora**.
  - Sari-banaketan, Autonomia Erkidegoko edo klubeko bandera ofizialak ez diren bandera edo ikur batekin igotzea podiumera = **deskalifikazioa**.
  - Parte-hartzaileek ezin izango dute aurikularrik erabili proba egin bitartean = **3 minututik deskalifikaziora**.

- 4.5.2 - Lasterketako Batzordeari dagokio zigorrak eta horien zenbatekoa ezartzea.

4.6.- Deskalifikazioa eta horrek ekar dezakeen zehapena

· 4.6.1- Honako hauetakoren bat egiteak korrikalaria berehala deskalifikatzea ekarriko du, eta diziplina-zehapena ekar diezaioke lehiakideari:
Sariak banatzeko ekitaldi ofizialean ez parte hartzea, justifikatutako arrazoirik gabe.
Lehiakide, antolamenduko kide, epaile taldeko kide edo ikusle baten kontrako kirol-gorabehera bat (erasoa edo iraina) eragitea.
Istripu bat nahita eragitea.
Nortasun faltsuarekin edo beste pertsona bat ordezkatuz parte hartzea.
Ibilbidean edozein zabor (gelak, bilgarriak, etab.) botatzeak korrikalariaren deskalifikazioa ekarriko du automatikoki.

· 4.6.2 - Lasterketako Batzordeari dagokio zigorrak eta horien zenbatekoa ezartzea.

4.7. – Proba atzeratzea, etetea eta bertan behera uztea

· 4.7.1- Probak ezingo dira ez atzeratu ez bertan behera utzi, baldintza guztiz txarretan izan ezik. Hori dela eta, antolatzaileak behartuta daude **beste ibilbide batzuk** aurreikustera, anomalia klimatologikoko egoeretan egiteko diseinatutakoak (lainoarekin, elurrarekin, etab.), lasterketa eten edo atzeratu beharrik ez izateko.

· 4.7.2- Egoerak hala eskatzen badu, proba eten ahal izango da, ibilbidearen puntu batean. Hala eginez gero, lasterketa eten den uneko posizioak eta denborak hartuko dira, edo, bestela, egindako azken kontrolekoak.

· 4.7.3- Neutralizatzeko unean kontroletik igaro diren eta lehiatzen jarraitzeko nahikoa baldintza onak dituzten korrikalariak baldin badaude:
- Hurrengo kontrolean neutralizatuko dira, eta azken kontrol horretara iritsi diren ordenaren arabera emango da amaitutzat proba. Hurrengoak aurreko kontroleko edo neutralizazio-puntuko korrikalariak izango dira.
- Helmugaraino kontrolik ez badago, helmugara iristean egindako denborak hartuko dira, eta besteak neutralizazio-puntuan hartuko dira.
- Baldintzek lehiatzen jarraitzeko aukerarik ematen ez badute, aurreko neutralizazio-puntuko denborak hartuko dira.

· 4.7.4- Proba eteten bada edo bertan behera uzten bada, baldintza klimatologikoek hala eskatzen dutelako, eta ibilbide alternatibo guztiak ere baztertzen badira, ez dira itzuliko izena emateko kuotak. Egoera hori gertatzen bada, eta antolatzaileek ibilbide alternatiborik aurreikusi ez badute, antolatzaileek izena emateko kuotak itzuli beharko dituzte, eta zehapen-espedientea ireki ahal izango zaie antolatzaileei, araudia ez betetzeagatik.

5. Dopina

Guztiz debekatuta dago kirolarien gaitasun fisikoak artifizialki areagotzeko substantziak, talde farmakologikoak eta metodoak erabiltzea, eta honako hauek aplikatuko dira: kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko ekainaren 20ko 3/2013 Lege Organikoa, Araudia eta EMFren gainerako xedapenak.

Dopinari dagokionez, EMFren Dopinaren Aurkako Batzordeak kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko ekainaren 20ko 3/2013 Lege Organikoan ezarritakoa jarraitzen du. Batzorde horrek Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziaren (AEPSAD) jarraibideak betetzen ditu, eta AEPSADekin harremanetan jartzeaz arduratuko da, dagozkion ondorioetarako.

Kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko ekainaren 20ko 3/2013 Lege Organikotik aurrerako dopinaren arloko zehapen-eskumena AEPSADi dagokio, eta ofizialki nazioarteko mailakotzat kalifikatutako kirolariak edo nazioarteko lehiaketetan parte hartzen dutenak direnean soilik dagokio eskumena Mendiko eta Eskaladako Kirolen Euskal Federazioari. Kasu horretan, eta emaitza desegokia duen lagin baten aurrean, EMFren Dopinaren Aurkako Batzordeak bere ebazpenaren berri emango dio EMFren Diziplina Batzordeari, behin betiko erabakia har dezan eta dagozkion zehapenak ezar ditzan.

6. Triptikoak eta kartelak egiteko arauak

Mendi Lasterketen Lehiaketetako programak (diptikoak, triptikoak, posterrak, webguneak, etab.) egiten dituzten erakundeek EMFko Komunikazio Sailari aurkeztu beharko dizkiote beren proiektuak, haren oniritzia jaso dezaten, eta honako hauek hartu beharko dituzte kontuan:

Azala
Erakunde edo klub antolatzailearen izena eta logotipoa.
EMFren izena eta logotipoa.
Lehiaketaren izena eta edizio-zenbakia.
Proba egingo den eguna.
EMFren goiburu ofiziala: Mendi Lasterketen Euskadiko Kopa, Txapelketa, Sari Nagusia, etab.
EMFren babesleen logotipoak.

Programaren barrualdea
Irteeraren eta helmugaren kokapena.
Distantzia.
Desnibel metatua (igoera eta jaitsiera)
Lehiaketaren profila: lasterketaren ibilbidearen profila eskalan egingo da, eta proportzio hori 1 km-ekoa izango da desnibeleko 100 metroko.
Kontrolen eta hornidura-puntuen kokapena.
Nahitaezko materiala edo antolatzaileak gomendatutakoa.
Lehiaketaren aurreko bileraren ordua eta lekua.
Antolakuntzak korrikalarien eskura jartzen dituen zerbitzuak.
Mendi Lasterketen Euskadiko Koparako proba puntuagarria izanez gero, beste lehiaketa osagarrien berri emango da: antolatzailearen izena, datak, lehiaketaren lekua.
Ordutegi orokorrak, irteera, eten-puntuak, trofeoen banaketa, etab.

Izen-emateak
Izena emateko tokia, epea eta ordutegia.
Izena emateko webgunea edo plataforma.
Inskripzioaren zenbatekoa eta prezioan sartzen dena.
Deskontuak zehaztu, halakorik izanez gero.
Gehieneko korrikalari kopurua.
Lehiaketako zuzendariaren izena.
Izena emateko tokia, epea eta ordutegia, EMFko federatuentzako epe berezia nabarmenduta, **4.1.7** puntuaren arabera.

Araudia
Zehaztu behar da EMFren Mendi Lasterketen Araudiak ezartzen dituela bete beharreko jarraibideak.

7. Erreklamazioak eta apelazio-sistema

7.1 – Erreklamazioak

- 7.1.1 - Erreklamazioak idatziz egingo dira, eta gutxieneko formatu bat izan beharko dute, honako hauek jasoko dituena:
  Erreklamazioa egin duen pertsonaren izena.
  NAN zenbakia.
  Ordezkatzen duen klub edo federazio autonomikoa.
  Eragindako kirolarien izena.
  Dortsal-zenbakia.
  Alegatzen diren egitateak.

OHARRAK:
60 €-ko gordailua egingo da erreklamazio bakoitzeko, eta diru hori itzuli egingo da erreklamazioak aurrera egiten badu.
Ikusi eranskineko eredua (1. eranskina).

- 7.1.2 - Erreklamazioak Lasterketako Batzordeari entregatuko zaizkio, eta hark kopia bat emango dio erreklamaziogileari.

- 7.1.3 - Behin-behineko sailkapenei buruzko erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira, sailkapena argitaratu eta 10 minutu igaro arte.

7.2 – Lehiaketaren ondorengo erreklamazioa

- 7.2.1 - Lasterketa Batzordearen erabakien aurkako erreklamazioak **EMFren Mendi Lasterketen Arlora** zuzendutako idazki baten bidez aurkeztu behar dira, eta, gehienez ere, 7 egun naturaleko epea izango da erreklamazioak aurkezteko, sailkapenak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. EMFren **Mendi Lasterketen Arloak** 30 egun naturaleko epean emango du ebazpena, eta epearen azken eguna jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera luzatuko da epea.

- 7.2.2 - **EMFren Mendi Lasterketen Arloko** erabakien aurkako errekurtsoak EMFren Diziplina Batzordean jarriko dira, erabakia jaso eta 30 egun naturaleko epean.

8. Lehiaketen segurtasuna eta homologazioa

8.1 – Atarikoa

- 8.1.1 - Lehiaketa ofizial baten antolatzaileek jarraian deskribatzen diren arauak bete behar dituzte.

- 8.1.2 - Ibilbide batek, homologatua izateko, zenbait baldintza bete beharko ditu, lehiakideen segurtasuna uneoro bermatzeko.

8.2 – Ibilbidea

- 8.2.1 - **EMFk** baimendutako lehiaketa guztiak mendi-inguruan egingo dira. Ibilbideek behar bezala trazatuta, markatuta, balizatuta eta kontrolatuta egon behar dute.

- 8.2.2 - Lokomozio-modu bakarra oinezkoa izango da. Noizean behin, eta aukeratutako inguruak hala eskatzen badu, katuka igotzeko tarteak izango dira, sokak erabili ahal izango dira igoerak eta jaitsierak egiteko, edo lerratzeak ere egin ahal izango dira.

- 8.2.3 - Trazadura behar besteko aurrerapenarekin berrikusiko da, haren kalitatea bermatzeko, eta probaren bezperan egingo da azken berrikuspena, balizajea amaitzeko.

OHARRA:
Oso teknikoak diren pasabideak saihestea gomendatzen da (adibidez, ertz harritsuen eskalada, rappela, etab.), korrilakariak ez pilatzeko, beharrezkoak ez diren arriskuak saihesteko eta lehiaketa ez moteltzeko.
Katuka igotzeko eremuek II. mailako zailtasuna izango dute gehienez, eta 50º-ko malda.

- 8.2.4 – EMFren Mendi Lasterketen probetarako desnibelak eta distantziak.

Lerroko lasterketak:

- 34 km arteko lasterketetarako – Igoeran metatutako gutxieneko desnibela: 1.200 metro.
- 34 km baino gehiagoko lasterketetarako – Igoeran metatutako gutxieneko desnibela: 1.500 metro.
- Kadete eta gazte kategorietarako: 12 km eta 700 metroko gehieneko desnibel metatua igoeran (+/- % 20).
- Kadeteen kategoriarako: 9 km arteko distantzia, eta 400 metroko gehieneko desnibel metatua igoeran (+- % 10).
- Gazteen kategoriarako: 12 km arteko distantzia, eta 700 metroko gehieneko desnibel metatua igoeran (+- % 20).
- Juniorren kategoriarako: 16 km arteko distantzia, eta 900 metroko gehieneko desnibel metatua igoeran (+- % 20).

Lasterketa bertikalak:

- Lasterketa Bertikalen lehiaketek igoera bakarra izango dute, eta % 5eko jaitsierak onartuko dira gehienez, lurraren ezaugarrien araberakoak eta, betiere, ez

eragindakoak.

- Igoerako gutxieneko desnibela 700 metrokoa izango da.
- Gehieneko distantzia 8 kilometrokoa izango da.
- Batez besteko maldaren ehunekoa % 20tik % 50era bitartekoa izango da, honako formula honen arabera: Distantzia bertikalean x 100 / Distantzia horizontalean= Maldaren %
- Lurzoruaren tipologiak egokia izan behar du norbera babesteko materialik gabe aurrera egiteko, eta soka finkoak erabili ahal izango dira, ibilbidearen baldintzek hala eskatzen badute.
- Kilometro Bertikala izateko, lehiaketak irteeraren eta helmugaren artean 1.000 metroko desnibel positiboa (+/- % 5eko tolerantzia) izan behar du, malda handiko lur irregularrean garatu behar du, eta ibilbideak ez ditu 5 kilometro baino gehiago izan behar.
- Kadete, gazte eta junior kategoriako parte-hartzaileek ezin izango dute 1.200 metrotik gorako desnibela duten lehiaketetan parte hartu.

Ultra Trail lasterketak:

- 60 km-ko distantzia gutxienez, eta 3.600 m-ko desnibel positibo metatua gutxienez irteeraren eta helmugaren artean.

· 8.2.5 - Ibilbidea seinaleztatzea: ibilbidea seinaleztatzeko, ingurunearekiko kontraste argia duten banderak, zintak, geziak eta koloreak erabiliko dira, eta ez da orientazio-teknikarik beharko seinaleei jarraitzeko.
Markatzeko elementuak material biodegradagarriekin egindakoak izatea gomendatzen da.
Ikusmen-baldintza normaletan, marka batetik hurrengoa ikusi beharko da. Baldintza meteorologiko txarretan, seinaleztapen gehiago jarri beharko dira (bi aldiz gehiago behintzat), lehiakideen segurtasunik handiena bermatzeko betiere.
Nahasmena eragin dezaketen lekuak behar bezala seinaleztatuta egongo dira, kolore nabarmeneko balizatzeko zinta bidez.
Soilik asfaltoan eta herrietatik gertu erabili ahal izango dira pintura-seinaleak. Zuhaitz, harri eta abarretan ez da onartuko, ezta herrien barruan edo monumentu historikoen gainean ere.
Lehiaketa amaitzean, antolatzaileek seinaleak jartzeko, proba kontrolatzeko eta hornidura-postuak jartzeko erabilitako material guztiak kendu beharko dituzte, eta gehienez ere 7 eguneko epea izango dute horretarako. Puntu hori bete ezean, diziplina-espedientea ireki ahal izango zaie, natura-ingurunea kutsatzeagatik.
Gutxienez 5 kilometroko tarte bakoitzeko kilometroen adierazgarri bat erabiliko da. Balizatzeko seinaleen kolore desberdina izango du, eta kilometroen zifra ondo definituta agertuko da bertan.
Ultra Trail lasterketetan, kilometro-adierazlea 10 km-tik behin jarriko da.
Antolakuntzak hondakinak gaika biltzeko edukiontziak izango ditu, ahal dela koloreen arabera.

· 8.2.6 - Irteerako eta helmugako kontrolak.
Probak irteerako kontrol bat eta helmugako kontrol bat izango ditu, eta leku berean egon daitezke edo ez (ikusi 8.4 atala).
Kronometraje-kontrol bat egongo da irteerako eta helmugako lerroetan.

· 8.2.7.- Pasoko kontrolak.

Pasoko kontrolak jarriko dira punturik esanguratsuenetan: gailurretan, mendi-lepoetan, bidegurutzeetan, etab.
Ondo balizatuta egon beharko dute, eta korrikalariak pasabidearen barrutik igaro beharko dira.
Pasoko kontroletan, tarteko denborak hartu ahal izango dira, proba etengo dela aurreikusten bada.
Kontrol bakoitzean, antolakuntzako behar beste kide egon beharko dira.
Pasoko kontrol horiek hornidura-puntu ere izan daitezke. Hornidura-puntu solido bat egongo da, gutxienez. Hornidura-puntuan paperontziak egongo dira, eta hortik 100 metrora.

- 8.2.8 – Orientatzeko kontrolak.
  Lurzoruaren baldintzek hala eskatzen badute, inguru arriskutsuetan edo nahasmena eragin dezaketen eremuetan (harriak, amildegiak, ibaiak, norabide-aldaketak, basoak, pisten bidegurutzeak, etab.), behar bezala seinaleztatuta eta balizatuta egoteaz gain, antolakuntzak behatzaile edo orientatzeko kontrol bat jarri beharko du.

- 8.2.9 - Ibilbidea aurreko egunean eta lehiaketa hasten den ordu berean markatuta eta balizatuta egongo da, ikuskatzaileek ibilbidea egin ahal izan dezaten, ondoren homologatzeko. Baldintza meteorologiko txarrengatik ibilbide alternatibo bat egiten bada, lasterketa hasi baino 12 ordu lehenago markatuta eta balizatuta egon beharko da.

- 8.2.10 - Ibilbidearen ezaugarriak:
  Lehiaketen ibilbidea asfaltatu gabeko pistetan eta bideetan, bidezidorretan, sakanetan eta abarretan egingo da beti. Hala eta guztiz ere, gehienez ere ibilbide osoaren % 15 asfalto, zementu edo edozein zoladura motaren gainean egitea baimenduko da.

- 8.2.11 - Kasu guztietan, gehienez ere lasterketaren ibilbidearen % 50 izango da ibilgailuekin egiteko modukoa.

- 8.2.12 - Lasterketaren antolatzaileek Lasterketa Ixteko Kontrola (erratz-taldea) aurreikusiko dute.

8.3 – Segurtasuna

- 8.3.1 - Arrisku objektiboak dituzten eta hondar-arriskua saihestu ezin den eremuetan, arriskuaz ohartarazteko kontrolak jarri behar dira, pertsona batekin edo gehiagorekin.

- 8.3.2 - Lehiaketan erabilitako babes-material orok (eskaladako babesa, etab.) UIAAren eta EBren estandarrak bete beharko ditu, EMFk besterik adierazi ezean.

- 8.3.3 - Ikuskatzaileek ibilbidea ikuskatu behar dute, erregelamendua eta araudia betetzen dituela ziurtatzeko.

- 8.3.4 - Antolakuntzak mediku bat izan beharko du, behar den osasun-laguntza emateko ekipamendu egokiarekin. Gurutze Gorriaren, Babes Zibilaren eta abarren laguntza jaso ahal izango da.

- 8.3.5 - Antolatzaileek segurtasun-plan bat, salbamendu-talde bat eta horretarako material egokia

eduki beharko dituzte, istripuren bat gertatuz gero modu egokian erantzuteko eta zauritua ahalik eta azkarren ebakuatu eta ospitalera eramango dela ziurtatzeko. (Baldintza klimatologiko txarrak direla-eta, aireko salbamendurik egin ezin den kasua aurreikusi behar da).

- 8.3.6 - Arrisku objektibo batek (elur-jausiak, harri-jausiak, etab.) eragindako eta lehiaketaren bezperan gainbegiratu eta onartutako ibilbidearen sektore bat bertan behera utzi ahal izango da, segurtasun-arrazoiak direla medio, ibilbidearen tarte horren arriskua ia osorik murriztu ezin denean. Kasu honetan, antolatzaileak ez daude behartuta ezaugarri bereko beste tarte batekin ordeztera, nahiz eta horrek probaren guztizko desnibelean eragina izan.

- 8.3.7 - Ibilbideko edozein puntutan, lasterketako medikuak edo EMFko epaileek korrikalari bat lehiaketatik kanporatzea erabaki ahal izango dute, baldin eta korrikalari horrek ahitze-sintoma nabarmenak baditu edo lehiaketan ez jarraitzea gomendatzen duen beste sintomaren bat badu.

8.4 – Irteerako eta helmugako guneak

- 8.4.1 – **Irteerako gunea:**
  Irteerako guneak, ahal den neurrian, 10 metroko aurrealdea izango du. Irteerako gunea behar bezala balizatuta egongo da, esparru itxi bat eratuz, eta nahitaez sartu beharko da bertara, dagozkion egiaztapenak egin ahal izateko.
  Irteerako gunean kronometro bat jarriko da, eta helmugarekin konektatuta egongo da. Irteera ematen den unean jarriko da martxan.
  Irteerako gunera sartu aurretik, honako kontrol hauek gainditu beharko dituzte lehiakideek:
  - Dortsalak.
  - Materiala.

  Irteeran, lehiakideen materiala biltzeko eta gordetzeko zerbitzu bat egon beharko da, lehiakideek eurek helmugan berreskuratu ahal izan dezaten.

- 8.4.2.- **Helmugako gunea:**
  Helmugako puntu kronometratua antolatzaileek ezartzen duten lekuan egongo da, eta irteerako puntu bera izan daiteke.
  Korrikalarien helmugako sarrera toraxaren aurreko aldeak zehaztuko du.
  Azken 100 metroak erraz identifikatzeko moduan balizatu beharko dira, eremu horretan pertsonak gurutzatu ez daitezen.
  Helmugako gunea behar bezala balizatuta egon beharko da, eta publiko orokorra sartu ezingo den esparru bat eratuko da. Akreditazioa dutenak bakarrik sartu ahal izango dira bertara. Helmugako esparruaren barruan kronometraje-sistema bat, materiala kontrolatzeko mahai bat edo gehiago dituen gune bat eta hornidurarako erreserbatutako gune bat egongo dira (ikusi **8.6** atala).

8.5 – Kontrolak. Esleitzen zaizkien egitekoak eta ardurak

- 8.5.1 - Antolatzaileek arduradun bat izendatuko dute puntu bakoitzerako, eta puntu horiek erraz identifikatzeko modukoak izan behar dute.

- 8.5.2 - Pasoko kontrol-puntu bakoitzak komunikazio-sistema bat izango du, probaren zuzendariarekin konektatuta, bai eta kontrol-liburuxka bat, arkatza eta lehen laguntzetarako botika-kutxa bat ere.

- 8.5.3 – Pasoko kontroleko kideek honako hauek idatziko dituzte liburuxkan: dortsal-zenbakia, talde bakoitzaren igarotze-ordua, korrikalaria, lasterketa utzi duten parte-hartzaileak eta araudia ez betetzeagatik sor daitezkeen irregulartasunak. Proba amaitzean, Lasterketako Batzordeari eman beharko diote.

- 8.5.4 - Kontroleko kideek ahalmena izango dute lehiakideak salatzeko, lehiakideek lehiaketa-araudia hausten badute, eta Lasterketako Batzordeari arau-hauste horien berri emango diete. Kontrolak ezin izango du inola ere korrikalari bat zigortu edo atxiki.

- 8.5.5 - Kontroletako kideek ondo ezagutu beharko dute esleitu zaien eremua.

- 8.5.6 - Kontroleko kideek dute esleitu zaien eremuan lehiakideen segurtasuna zaintzeko ardura.

- 8.5.7.- Kontrolek ahalmena dute parte-hartzaileei uneoro izan beharreko jokabidea adierazteko, hala nola:
    - Arrisku objektiboen kasuan: **lehiakideak nola jokatu behar duen.**
    - Bidegurutzeak: **orientatzea, nahasketarik ez gertatzeko.**
    - Ibilbide-aldaketa: **eguraldi txarra, ezustekoak,** etab.
    - Istripua: **laguntza ematea.**
    - Neutralizazioa: **kronometratzea**.
    - Lasterketa utziz gero: **zer ibilbide jarraitu behar duten adieraztea.**
    - Proba bertan behera geldituz gero: **zer ibilbide jarraitu behar duten adieraztea.**
    - Material zehatzaren erabilera: **kendu edo jarri behar duten esatea.**
- 8.5.8.- Kontrol guztiek adierazitako lekuan eta probako irteera baino 30 minutu lehenago jarrita egon beharko dute.

8.6 – Hornidura

- 8.6.1- Antolatzaileek hornigai solido eta likidoak emango dituzte helmugako gunean, proba amaitzean.

- 8.6.2- Erabat debekatuta dago probak dirauen bitartean edonoren (beste korrikalari bat edo beste norbait) laguntza edo hornigaiak hartzea, antolatzaileek emandakoak edota Lasterketako Batzordeak aurreikusitako guneetan baimendutakoak izan ezik.

- 8.6.3 - Ibilbidean zehar, hornidura-kontrolak gehienez ere 5 kilometroko distantzian edo 500 metroko desnibelean jarriko dira (Ultra lasterketetan izan ezik), lehenago zein baldintza betetzen den aintzat hartuta. Kontrol horietan, gutxienez, ura edo freskagarriak egongo dira. Puntu hau igoeretan eta eremu lauetan hartuko da kontuan bereziki, baina ez jaitsieretan. Lehiaketa bakoitzean, ibilbidearen erdian, hornidura-puntu solido bat egongo da, gutxienez.

8.7 – Kontroletako denborak

- 8.7.1- Antolatzaileek kontroletatik igarotzeko denbora batzuk zehaztu ahal izango dituzte, egokitzat jotzen dituzten irizpideen arabera. Zehaztutako denboran kontrolera iristen ez diren korrikalariak helmugara bideratuko dituzte, irteera-ibilbide batetik.

- 8.7.2- Proba amaitzeko gehieneko denbora bat zehaztuko da. Denbora hori aldatu egingo da, distantziaren eta lurzoruaren gogortasunaren eta ezaugarrien arabera, eta ibilbidearen ikuskatzaileek zehaztuko dute.

- 8.7.3- Kontrolak aurreikusitako denboran gainditu ezin dituzten lehiakideei ebakuazio-ibilbideak edo -bitartekoak eskaini beharko dizkiete antolatzaileek.

- 8.7.4- Kontroletik kanpo sartzen diren korrikalariak azken postuetan egongo dira sailkapen orokorrean.

8.8 – Mapak

- 8.8.1 - Antolatzaileek eskualdeko mapa edo krokisa eman beharko diote parte-hartzaile bakoitzari. Mapa edo krokis hori formatu digitalean eman ahal izango da, eta honako hauek zehaztu beharko dira:
    - Aurreikusitako ibilbidea eta ibilbide alternatiboa.
    - Pasoko kontrolak.
    - Orientatzeko kontrolak.
    - Irteera eta helmuga.
    - Osasun-zerbitzuko eta sorospeneko guneak.
    - Puntu gatazkatsuak.
    - Hornidura-puntuak.
    - Eten-puntuak eta ordutegiak.

- 8.8.2- Antolatzaileek ibilbideen profil bat emango diote parte-hartzaile bakoitzari, ibilbideko kotekin eta kilometroekin. Lasterketaren ibilbidearen profila eskalan egingo da, eta proportzio hori 1 km-ekoa izango da desnibeleko 100 metroko.

8.9 – Dortsala

- 8.9.1 - Antolatzaileek emango dute dortsala. Korrikalari bakoitzari bana.

- 8.9.2- Dortsala urarekiko erresistentea den oihalezkoa edo beste material batekoa izango da, eta 20 x 20 cm-ko neurriak izango ditu gutxienez.

- 8.9.3 - Antolatzaileek emandako dortsala nahitaez eraman behar dute lehiakideek. Proba egin bitartean, ondo ikusteko moduan eta aurrealdean eraman behar dute, eta ezingo da tolestu edo ebaki.

- 8.9.4 - Irteera-gunera sartu aurretik, dortsalaren kontrola egingo da.

- 8.9.5 - Dortsala behin betiko azken sailkapenera arte gorde beharko da.

8.10 – Materiala gainbegiratzea eta kontrolatzea

- 8.10.1- Proba hasi aurretik, antolatzaileek honako material hau gainbegiratuko dute:
    1) Oinetakoak eta minimalista eta alternatiboetarako baldintzak eta osagarriak, probaren altueraren arabera; 2) Dortsala; 3) Jantziak; eta 4) Antolatzaileek eskatutako materiala.

- 8.10.2- **Lehiaketaren Araudiko 4.2** atalean zehaztutako baldintzak betetzen ez dituen material guztia baztertu egingo da.

- 8.10.3- Antolatzaileek eskatutako materiala helmugan kontrolatuko da, eta, hala badagokio, zigorra ezarriko da, lehiaketaren Araudiko 4.5 puntuaren arabera.

- 8.10.4 - Irteera-gunera sartu aurretik, dortsalaren kontrola egingo da. **4.2.1** atalean zehazten diren baldintzak betetzen ez dituzten parte-hartzaileei ez zaie proban parte hartzen utziko.

8.11 – Ibilbide alternatiboak

- 8.11.1- Proba menditik igarotzen dela eta baldintza meteorologikoen eta elur-baldintzen eragina handia dela jakinda, antolatzaileek ibilbide alternatibo bat edo gehiago izan beharko dituzte. Baldintza meteorologikoak edo elur-baldintzak txarrak badira, ibilbide alternatibo horiek egin ahal izango dira.

- 8.11.2- Antolatzaileek baldintza meteorologiko eta elur-baldintza okerrenak aurreikusi beharko dituzte, egoera horietarako ibilbide alternatibo bat aztertzeko.

- 8.11.3 - Ibilbide horiek araudi honetako atal guztiak bete beharko dituzte.

8.12 - Informazio-bilera

- 8.12.1 - **Proba hasi aurreko arratsaldean**, antolatzaileek informazio-bilera bat egin beharko dute, parte-hartzaileei honako hauen berri emateko:
    - Aurreikusitako ibilbidea, ezaugarriak: luzera eta desnibela.
    - Irteera-ordua.
    - Lehen korrikalariak egin dezakeen denbora, gutxi gorabehera.
    - Kontrolen kokapena, eta pasoko gehieneko denborak.
    - Hornidura-puntuak.
    - Lasterketa amaitzeko gehieneko denbora.
    - Leku arriskutsu edo gatazkatsuen kokapena.
    - Material berezia erabili behar den lekuak, halakorik balego.
    - Sokak dituzten lekuak, baldin badaude.

- Probarako nahitaezko materiala.
- Material osagarria korrikalari minimalistentzat eta alternatiboentzat, hala badagokio.
- Aurreikusitako meteorologia.
- Elurrari buruzko informazioa, beharrezkoa bada.
- Ingurumenarekiko errespetua.
- Parte-hartzaileen eskubideak eta betebeharrak.
- Epaile taldearen eta EMFko arduradunaren aurkezpena.

OHARRAK:
Informazio-bilera antolatzaileen, epaileen eta ikuskatzaileen artean prestatzea gomendatzen da. Ibilbidearen deskribapena gardenkien edo diapositiben bidez egitea gomendatzen da.

· 8.12.2- Informazio hori guztia iragarki-taula batean jarri beharko da ikusgai, bilera egiten den lekuan bertan.

· 8.12.3 - **Goizean, proba hasi aurretik**, antolatzaileek honako hauek gogorarazi beharko dituzte:
  - Bezperan adierazitako puntu garrantzitsuak.
  - Azken orduko aldaketak.

8.13 – Sailkapenak

· 8.13.1- Kategoria bakoitzeko sailkapen bat egingo da, ibilbidea egiteko behar izan duten denboraren arabera. Denbora horri lehiakideak izan ditzakeen zigorrak gehituko zaizkio.

· 8.13.2- Bere kategorian denbora gutxien egin duen korrikalaria izango da probaren irabazlea bere kategorian, izan ditzakeen zigorrak aplikatu ondoren.

· 8.13.3- Proba amaitzean, antolatzaileek kategorien araberako sailkapenak emango dizkiote EMFko ordezkariari, paperean eta formatu informatikoan, eta lehiakideei jakinaraziko dizkiete.

9. EMFren rankinga

9.1- - Definizioa

EMFren rankinga urte horretako EMFren lizentzia duten kirolariek EMFren egutegi ofizialeko probetan lortutako emaitzarik onenen balorazioa da. Denboraldi bakoitzean, EMFk emaitza horien araberako ranking bat egingo du.

9.2.- Puntuazioa

Modalitate guztietako (bertikala, lerrokoa eta ultra) Euskadiko Txapelketei dagozkien sailkapenak hartuko dira kontuan, bai eta modalitate guztietako (bertikala, lerrokoa eta ultra) Euskadiko Kopako probak eta modalitate guztietako (bertikala, lerrokoa eta ultra) proba homologatuak ere, 1. postutik 15. postura arte.

Lasterketako postua	**1**	**2**	**3**	**4**	**5**	**6**	**7**	**8**	**9**	**10**	**11**	**12**	**13**	**14**	**15**
Euskadiko Txapelketak	25	24	23	22	21	20	19	18	17	16	15	14	13	12	11
Euskadiko Kopako probak	20	19	18	17	16	15	14	13	12	11	10	9	8	7	6
Proba homologatuak	15	14	13	12	11	10	9	8	7	6	5	4	3	2	1

Lehiaketa bakoitzeko sailkapen absolutuan lortutako postuak hartuko dira kontuan beti, gizonezkoena zein emakumezkoena, eta, horrela, gizonezkoen rankinga eta emakumezkoen rankinga egingo dira.

Berdinketa gertatuz gero, honela jokatuko da:

Lehenengo eta behin, Euskadiko Txapelketetan lortutako puntuaziorik onena balioetsiko da, eta, azkenik, Euskadiko Kopetan lortutakoa, hala badagokio. Kalkulu hori aplikatuta berdinketak jarraitzen badu, lortutako postua *ex aequo* dela adieraziko da.

Gasteizen, 2023ko

Idazkaria **Presidentea**

AINARA APARICIO ARRONATEGUI **ZIGOR EGUIA SUANCES**

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: erreklamazio-orria

Erreklamazio-orria EMFren paper ofizialean inprimatu beharko da, atal guztiak bete beharko dira eta erreklamaziogileak eta Lasterketako Batzordeko kide batek sinatu beharko dute. EMFren ordezkariak sinatu beharko du ordainketaren ordainagiria, eta hark jasoko du zenbateko hori. Erreklamaziogileari erreklamazioaren kopia edo fotokopia bat eman beharko zaio.

ERREKLAMAZIO-ORRIA

Data honetan egindako lehiaketa: ……/……/…….. Erreklamazio-zenbakia: ……

Non:…….

Klub antolatzailea: …….

Erreklamaziogilea:

Izena	
Ordezkatzen duen kluba edo federazioa	
NANa (edo atzerritarrei dagokien parekoa)	
Helbidea	
Telefonoa	

Eragindako kirolariak:

Izena	Dortsala	Kluba edo federazioa

Gertakarien azalpena:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Korrikalariaren eskaria:

.....

.....

.....

.....(a)n, 202.....(e)ko .....(a)ren .....(e)(a)n

Erreklamaziogilea Lasterketa Batzordeko kidea

Sin. Sin.

EMFk kopuru hau jaso du: ***60 €***

Nork ordaindu du:.....

Kontzeptua:

Erreklamazio-gordailuaren zenbakia: ..... Eguna: ...../...../.....

Kopuru hori itzuli egingo da erreklamazioak aurrera egiten badu.

.....(a)n, 202.....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

EMFren ordezkaria.

Sin.

2. ERANSKINA: antolatzailea erantzukizunetik salbuesteko klausula, EMFren proba ofizialetan oinetako minimalista edo alternatiboak erabiltzen diren kasuan.

..... jaunak/andreak, adinez nagusia denak (NAN:.....), adierazten du (*probaren izena*) ..... probaren ezaugarrien eta gomendatutako materialaren berri jaso duela, eta mendiko edozein jardueratan parte hartzeak berez dakartzan arriskuak ezagutzen dituela eta borondatez onartzen eta bere gain hartzen dituela; aurreko guztia jakinda, oinetako minimalistekin edo alternatiboekin parte hartzea erabaki du, eta erabaki pertsonal horrek eragin dezakeen edozein erantzukizunetik salbuesten ditu erakunde antolatzaileak.

..... (a)n, 20..... (e)ko ..... aren ..... (e)(a)n.